



Herritarren eskura

Desfibriladore automatikoak ipini ditu udalak herriko bost puntutan, herritarren eskura egon daitezen eguneko 24 orduetan

HERRITARREN ESKURA

Desfibriladore automatikoak ipini ditu udalak herriko bost puntutan, herritarren eskura egon daitezen eguneko 24 orduetan



Xabier Igartua
eta Susana
Altuna
zinegotziak
Eltziako sarrera
nagusian
dagoen
desfibriladorea
erakusten

Orain arte udalaren hiru eraikinetan (Zubikoa kiroldegia, Eltzia eta Azkoagain) zeuden desfibriladoreak, eta, jakina, eraikin horiek zabalik zeuden bitartean bakarrik zeuden erabilgarri. Horregatik, larrialdiak edonoiz gerta daitezkeela kontuan hartuz, desfibriladoreak eraikinen kanpoaldean ipini ditu udalak, edozein ordutan erabilgarri egon daitezen.

Gainera, beste bi desfibriladore berri ere erosi ditu, eta Araotzen (Arrikruzeko kobako aparkalekuan) eta Arantzazun (denda ondoan) jarri ditu. "Herri gunetik urrun dauden auzoak dira eta, gainera, jende asko batzen den guneak izanik, leku egokiak iruditu zaizkigu desfibriladoreak ipintzeko, larrialdi zerbitzuek denbora gehiago behar izaten dutelako bertara iristeko" adierazi du Xabier Igartua zinegotziak.

Aipatutakoez gain, udaltzaingoak ere beste

desfibriladore bat eraman ohi du autoan.

ESKU-ORRIA ETA BIDEOA

Desfibriladoreak herritarren eskura jartzearekin batera, udalak eskuorri bat banatu du etxe guztietara. Gema Bikuña erizaina eta Arantzazu Ugarte medikuaren laguntzarekin osatu du eskuorria, eta bihotz-gelditzeak gertatzen direnean jarraitu behar dugun protokoloa azaltzen da bertan, beharrezkoa bada, desfibriladorea nola erabili behar den erakutsiz.

Eskuorriaz gain, bideo bat ere egin du udalak (QRa eskaneatu), esku-orriak dakarren informazioa irudien laguntzarekin azaltzeko. Hitzaldi bat ere antolatu du (Martxoak 17, Santa Ana, 18:30) lehen sorospenak eta desfibriladoreen erabileraren inguruan.



Bihotz-geldialdian laguntzeko App-a

Desfibrilagailuak herritarren eskura jartzeko udalak hartu duen ekimenarekin batera, komeni da gogoraraztea Osakidetza-ren '**Bihotz-geldialdian laguntzea**' aplikazioa ere eskura dugula, eta lagungarria gerta daitekeela larrialdi kasuetan.

Euskal Herri osorako balio duen App-a da, eta gure kokapenaren arabera, hurbilen dauden desfibriladoreen (publiko eta pribatu) kokalekua ematen digu eta, besteak beste, bihotz-masajea nola eta zein erritmotan egin behar den azaltzen du. Ondorengo QRa eskaneatuta deskargatu daiteke dohainik.



Mekalki
S. Coop. **mekanizatuak**

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

GEMA BIKUÑA ETA ARANTZAZU UGARTE ERIZAINA ETA MEDIKUA

"Oso garrantzitsua da 112 larrialdi sistema ahalik eta azkarren aktibatzea"

Desfibriladoreen kokapena eta erabilera azalduz, udalak etxe guztietara banatu duen eskuorria edukiz osatzen lagundu dute Gema Bikuña erizainak eta Arantzazu Ugarte medikuak. Begi onez ikusten dute desfibriladoreak herritarren eskura jartzea, baina bihotz-gelditze kasuak gertatzen direnean, 112 larrialdi zerbitzua ahalik eta azkarren aktibatzearen garrantzia azpimarratzen dute.

Desfibriladorearen funtzio-namendua azaltzeaz gain, aurretik jarraitu beharreko protokoloa ere azaldu nahi izan duzue udalak banatu duen eskuorrian.

Bai, noski. Foku edo arreta osoa desfibriladorean soilik ipini gabe, uste dugu garrantzitsua dela aurretik jarraitu beharreko protokolo unibert-

sala azaltzea, eta desfibriladorearen erabili aurretik eman beharreko urratsak gogoraztea. Eta azpimarratu nahi genuke oso garrantzitsua dela 112 alerta sistema lehenbailehen aktibatzea, horrela lortzen baita heriotza tasa jaistea.

Zer iruditzen zaizue desfibriladoreak herritarren eskura



Martxoak 17 Santa Ana. 18:30.
Lehen sorospenak eta desfibriladorea - Aurkezpena

jartzea?

Oso ondo. Samur erabiltzen den erreminta bat da, edozein pertsonak erabiltzeko modukoa. Hiru urrats edo pauso ditu eta oso intuitiboa da. Udalak atera dituen eskuorrian eta bideoan ondo azaltzen da nola erabili behar den. Gainera, 112 zerbitzutik jarraibideak ematen dituzte uneoro.

Oso zaila da gaizki erabiltzea eta, aldiz, egoki erabiliz gero, oso lagungarria gerta daiteke.

Beharrezko ikusten al duzue formazio saioak antolatzea?

Uste dugu udalak baduela hitzaldi edo formazio saioen bat antolatzeko asmoa. Gu prest gaude. Inportantea da jendea ahalduntzea eta trebatzea.

BIXENTE ELGUERO / BIHOTZEOA EMAN ZION

"Desfibriladoreak bigarren aukera bat eman zidan orain dela lau urte"

Oso kirolaria izan da beti Bixente, bizi osasuntsua eraman zalea. Baina, hala ere, ustekabea, bihotzekoak eman zion orain dela lau urte, Gabonetako kontzertua entzuten ari zela, San Migel parrokan. Zorionez, erizainak eta medikuak zeuden inguruan, eta hauek egindako suspertze masajeei eta herritar batek eramandako desfibriladoreari esker, erreanimatzea lortu zuten.

Nola gogoratzen duzu 2016-ko abenduaren 18?

Gabonetako kontzertura bidean nindoala, zeozer arraroa nabaritu nuen bular aldean. Baina haizeren bat izango zelakoen, ez nion aparteko garrantzirik eman. Parrokan eseri nintzen, eta handik 45 bat minutura eman zidan bihotzekoak.

Zorionez, jendeak oso azkar

erreakzionatu zuen.

Bai, zorte hori izan nuen. Inguruan erizainak eta medikuak zeuden, eta hauek berehala hasi ziren bihotz-birikak suspertzeko masajeak egiten. Bien bitartean suhiltzaile batek etxean zeukan desfibriladorearen ekarri zuen, eta halaxe atera ninduten aurrera. Txagorritxun lau bat egun eman nituen, eta Gabonetarako bueltatu nintzen etxera,

bi arteriatan stent bana ipinita.

Errekuperazioa luzea izan zen?

Bihotz elkartea Zumarragan daukan egoitzan 26 saio egin nituen: ariketa fisikoak, hitzaldiak, erlaxatzeko teknikak... Oso gustura egon nintzen.

Ondoriorik utzi al dizu?

Ezta batere. Bizimodu normala egiten dut. Astelehenetik ostegunera ordubeteko ibilaldiak egiten ditut, ostiralean Urbiara joaten naiz (pultsazioak zainduta) eta domeketan igeri egitera.


Zer iruditzen zaizu desfibriladoreak herritarren eskura ipintzea?

Oso ondo, edozein lekutan eta edozeini gertatu ahal zaio-lako. Nik bigarren aukera izan nuen desfibriladoreari esker.



AURKIKUNTZA BERRIAK

Aloña Mendi Espeleologia Taldeak galeria berriak aurkitu ditu Arrikruz, Lizartza-1 eta Arantzazu Erreka-1 kobazuloetan



Aloña Mendiko espeleologoek Arrikutzen aurkitu duten 'Elena' galeriako irudia / AMET

Beste hainbat arlotan bezala, espelelogoen jarduna ere baldintzatu du Covid-ak, baina, hala ere, 2020a oso emankorra izan da Aloña Mendi Espeleologia Taldearentzat (AMET), oso noizbehinka gertatzen diren aurkikuntzak egin baitituzte. Hala, Arrikutzen, gutxienez 200 metro dituen galeria berria aurkitu dute; Iturrigorri inguruan dagoen *Arantzazu Erreka-1* kobazuloan ere, urez estalita egon ohi diren galeria berriak agertu dira, eta Lizartza-1 kobazuloan ere urrats berriak eman dituzte Gesaltzara iristeko ahaleginean.

lazko urtea amaitzeaz zela iritsi zen ezusteko nagusietako bat. Arrikruzeko *Arantzazu* galerian 15 metroko horma bat eskalatu ostean, orain arte ezezagunak ziren galeria berriak aurkitu zituzten. Oraingoz, 200 bat metroko galeria ederra agertu da, 'Elena' izenez bataiatu dutena, baina beste bi salto eta eskalada bat dituzte oraindik esploratzeko.

Ustekabe handia izan da AME-Teko kideentzat halako galeria berria aurkitzea, Arrikruzeko koba ondo baino hobeto miatuta dagoelako. Ezer berria agertzekotan, goiko mailako leihoren batean izan behar zen, eta halaxe gertatu da.

'ARANTZAZU ERREKA-1'eko MIRARIA

AMETeko kideek miraritzat jo dute Iturrigorri inguruan dagoen 'Arantzazu Erreka-1' kobazuloan aurkitutakoa. Haizulo honek 3 kilometro inguruko garapena dauka, eta Aloña Mendiko espeleologoak igaro ezina zirudien estugune bateraino iritsiak zi-



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net f i



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

ren. Urak handik jarraitzen duela ikusten zen, baina sedimentuz beteta zegoen. Leize hau urez beteta egoten da urteko sasoi askotan, eta zaila zirudien aurrera jarraitu ahal izatea.

Baina lehorte egun batzuk aprobetxatuz, eta bi egunez estugunean pilatutako errekarriak eta harea kubo batekin ateratzen ibili ostean, zirrikitu bat irekitzea lortu dute AMETeki kideek, eta beste aldean galeria berri eta ederrak aurkitu dituzte; 400 bat metro egin zuten aurrera, eta hurrengo batean esploratzeko putzu, arroila eta gela handiak daudela ikusi ahal izan dute.

URZULO ETA KATABERAKO MIÑAK

Urzulon esplorazio ugari egin izan dituzte AMETeko kideek azken urteotan, baina, une honetan, kobaren sarreratik azken punturaino iristeko 7 ordutik gorako bidea dago, eta horrek zaildu egiten du lana, eta arriskua areagotzen.

Horregatik, kontuan hartuz Urzuloko bukaera Kataberako meatzearen azpialdean dagoela, miñetako beheko galeria batetik (Aloñako iparraldetik ia Mallaraino iristen dena) sartzeko ahalgina egin dute Aloña Mendiko kideek. Sarrera oztopatzen zuten kareharrizko bloke handiak eta beste harri batzuk kendu ostean, 10 metroko luzera daukan adreiluzko galeria gangardun bat aurkitu zuten, baina AMETekoen pozak gutxi iraun zuen, 60 bat metro aurrerago sabaia behera erorita dagoela ikusi zutelako. Beraz, pena handiz, kanpora atera, sarrera berriro itxi, eta Urzulorako bidea mozteko aukera hori bertan behera utzi behar



Iturrigorriko Arantzazu erreka-1 kobazuloan aurkitutako galeria berri baten irudia / AMET




Lizartzako kobazuloan egokitu duten lau lagunentzako bibaka / AMET



Arantzazu erreka-1 kobako estugune bat / AMET



Iritegi kobako sifoi bat / AMET



Kataberako miñetako galeria bat / AMET

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte



MAPFRE
OÑATI



izan zuten.

Hala ere, ohiko bidetik sartuta, Urzuloko muturreraino iristeko aukera izan dute Aloña Mendiko kideek, BURNIA (Galdames) eta GEMA (Abadiño) taldeko kideen laguntzarekin, eta koba barruan prestatutako bibakean gaua igaro ostean, 640 metroko esplorazioa eta topografia lana burutu dute.

IKERKETA LANA ARANTZAZU ERREKAN

Orain arte aipatutakoez gain, lehendik katalogatuta zeuden beste hainbat haitzulo txikitako topografia lanak ere egin dituzte AMETeko kideek. Aipamen berezia merezi du Iritegi Sistemako (Iritegi, Aixelen koba eta Dordoka koba) topografia eguneratu eta osatzen egindako lana. Ur azpian egon ohi diren galeriak topografiatu dituzte, urteetako lanari amaiera emanez. Gainera, lan horri esker Arantzazuko arroan lurpean doazen erreken zirkulazioa hobeto ulertzeko lagungarria gertatu da.

Baina esplorazio eta topografia lanez gain, bestelako ikerketa lan bat ere egin dute AMETeko kideek. Jaurilaritzako Ingurumen sailaren dirulaguntza bati esker, Arantzazu bailarako lurrazpiko ibaien funtzionamendua hobeto ezagutzeko ikerketa jarri dute abian. Horretarako, sentsoz edo neurgailu berezi batzuk ipini dituzte kobazulo ezberdinetako galerietan, sakonera ezberdinetan, eta baita gainazalean ere, Arantzazu erreko arroan bertan, alegia.

Neurgailu horiek urte osoan zehar bidalitako datuekin lehen ondorioak ere atera ahal izan dituzte AMETeko kideek, eta artikulua interesgarria (*Arantzazu bailarako sare hidrogeologiko-enndokarstikoa*) argitaratu dute Euskal Espeleologo Elkartearen *Karaitza* aldizkariaren 27. zenbakian.

JENDE GAZTEA FALTA

Euskal Espeleologo Elkarteak urtero haitzuloren bat garbitzeko lanak egiten ditu auzolanean,



Lizartza eta Gesaltza lotzea amets

Lizartza eta Gesaltza lurrazpitik lotzea da Aloña Mendiko espeleologo aspaldiko amets edo helburuetako bat, eta asmo horretan urrats berriak ematea lortu dute 2020an. Jakin badakite, Lizartzako urak Gesaltzara doazela, baina beste kontu bat da giza-kiontzako moduko pasorik ote dagoen. AMETeko kideek lanean jarraitzen dute, eta iaz egindako esplorazioan galeria berriak aurkitu zituzten, baina urak hartutako pasabide batekin egin zuten topo, eta hurrengo batean saiaturiko dira zeharkatzen, beste aldean galeria bat antzematen baita. Goiko irudiak erakusten duen moduan, ia ia Gesaltza baserriaren azpiraino iristea lortu dute AMETeko kideek.

USTEKABEAK ERE KONTROLPEAN

Lizartzako koba oso nekagarria da, bai fisikoki eta baita psikologikoki ere. Oso estua da eta, gainera, 400dik gora metroko desnibela du. Gaur egun, Miñazulotik sartzen dira espeleologoak, baina, hala eta guztiz ere, ordu askoko esplorazioak izaten dira, eta horrek zaildu egiten du lana eta arriskua biderkatzen. Horregatik, koba barrenean gaua igarotzeko *bibak* bat prestatuta daukate lau lagunentzat.

Honen harira ezusteko txiki bat izan zuten azkeneko irteeran, izan ere, gaua bertan igaro bitartean aurreikusi gabeko ekaitzaldi bat igaro zen. Kanpora irteteko asmoz esnatu zirenean erreka hazita aurkitu zuten eta zakuen epeltasunera itzuli ziren emaria jaitsi arte. Kobazuloan denbora errez igarotzen denez, ohitura da irteera ordua beharrezkoa baino beranduago ezartzea, kanpokoak aldeztu aurretik ez kezkatzeko. Irteera honetan adostutako ordua baino minutu batzuk beranduago irten ziren, eta kanpokoek alarma jo berri zuten eta erreskate taldeak mobilizatzen hasiak zeuden. Lasaitu ederra hartu zuten barrukoak berri jakitean. ■



Lizartzan zeharkatu gabe utzitako azken putzua

>> Aloña Mendi Espeleologia taldea oso aktibo dago eta proiektu asko ditu esku artean, baina jende gaztea behar dute taldean

eta, iaz, Ugastegi inguruko *Arraskondoko* leizea garbitzen jardun zuten, Aloña Mendik proposatuta. Ondoko argazkian ikusten den moduan, espeleologo talde ezberdinetako kide ugari bildu ziren bertan, eta 2 tona eta erdi hondakin atera zituzten kobatik, beharrezko azpiegitura (polipasto, tirolina...) egokitu ostean.

Bistan da, beraz, Aloña Mendiko espeleologia saila oso aktibo dagoela. Urtean zehar 60 bat irteera egiten dituzte, eta proiektuak ez zaizkie falta, baina jende gaztea animatu nahi dute; AMETeko kide gehienak adinean aurrera doaz, eta lan jakin batzuk egiteko gazteak behar omen dituzte. Beraz, animo! ■



Arraskondoko leizea (Ugastegi) garbitzen aritu zen espeleologo taldea / AMET



Karaitza (27. zbk.) aldizkariaren azala eta Arantzazu arroko erreken funtzionamendua eta uraren gora-beherak aztertzeke instalatutako sentzore edo neurgailuak / AMET



MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

**GOI MAILAKO
HEZIKETA
ZIKLOAK**

2021-2022

Eskaintza akademikoa	Ate irekien jardunaldiak
•Automatizazioa eta Robotika Industrialia	Martxoak 24 18:00
•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	Martxoak 25 18:00
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	Martxoak 25 18:00
•Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa	Martxoak 24 18:00
•Mekatronika Industrialia	Martxoak 24 18:00

www.mondragon.edu/gmh
orientazio.lhm@mondragon.edu
 664 298 704 • 664 298 683






Merkataritza biziberritzeko ibilbide orria

Ikertalde enpresarekin eta sektoreko eragileekin osatu den **Ekintza Plana** aurkeztu du udalak



Udala, Ikertalde eta Txandako kideak Ekintza Planaren aurkezpenean

Merkataritza Biziberritzeko Plana eguneratzea zen udal gobernu taldearen agintaldi hasierako helburuetako bat eta, hala, iazko urte hasieran sektorearen egoeraren diagnostikoa egin zen Siadeco enpresaren laguntzarekin. Ondoren, dokumentu hura oinarri hartuta, ekintza plana osatzeari ekin zion, Ikertalde enpresaren gidaritzapean, eta joan den astean aurkeztu zuten dokumentua, merkataritza plana berritzeko prozesuari amaiera emanez.

Modu partekatuan landutako dokumentua da Ekintza Plana, sektoreko eragileen iritzia oso kontuan hartu baita, bai Txanda elkartearena eta baita gainontzeko merkataria ere. Sei ardatzetan egituratu da plana, eta 37 ekintza proposamen jaso dira bertan, lehenetsun maila, arduradunak eta aurrekontu orientatiboak zehaztuz.

Orain, ekintza horiek gauzatzeko kronograma adostu nahi du udalak sektoreko eragileekin batera, lehenetsun maila eta egingarritasunaren arabera. Hasteko, aurtengo aurrekontuetan 30.000 euroko diru poltsa dago ekintza plana abian jartzeko.

Jarraian ikus ditzakezue ardatz bakoitzean jasotako ekintza nagusiak. Udalaren webgunean ikus daiteke dokumentua osorik.

1. ardatza: Oñatiko merkataritza eredua

• Lokal hutsak

- Hutsik dauden lokalen poltsa sortu eta kudeatu (**ALTUA**)
- Alokairua sustatzeko laguntzak (**ERTAINA-ALTUA**)
- Hutsik dauden lokalak zergapetzea (**ERTAINA**)
- Lokal eta/edo erakusleihoak aldi baterako okupatzeko laguntza programa (**ERTAINA**)

• Araudia

- Merkataritza ekimen berrien irekiera erraztea (**ERTAINA**)
- Ornato (hutsik dauden lokalek bete beharreko garbiketa- eta estetika-baldintzak) ordenatzea (**ERTAINA-BAXUA**)

• Merkataritza eta aisialdi guneak

- Merkataritza eta aisialdi guneak berritzea (**ERTAINA-BAXUA**)
- Degradatutako eremuak berreskuratzea (**ERTAINA-BAXUA**)
- Braderie motako animazio ekitaldi bateratuak (**ERTAINA**)
- Hiri-altzariak (argiak, zoladura...) berritzea (**ERTAINA-BAXUA**)
- Merkataritza eta *Smart City* (IKTak kale mailan ezartzea) (**ERTAINA-BAXUA**)

• Merkatu plaza indartzea

- Merkatua indartzea, trakzio lana egin dezan (**ALTUA**)

2. ardatza: Digitalizazioa eta lehiakortasuna

• Saltokien barne-digitalizazioa

- Saltokien kudeaketa teknologikoa (**ALTUA+**)

• Bezeroarekiko kanpo-digitalizazioa

- Motibazioa eta animazioa. Profesionalak mundu digitalaren aukeraz baliatzera animatzea, tresna errazak, merkeak eta gauzagarriak erakutsiz (**ALTUA**)
- WhatsApp Marketing*, bezeroarekin lotzeko tresna gisa: banakakoa eta kolektiboa. *WhatsApp* modu profesionalen erabiltzen ikastea bezeroekin konektatzeko eta produktuak eta zerbitzuak saltzeko tresna gisa: hedapen-zerrendak, *WhatsApp myBussines*, katalogo digitalak... (**ALTUA**)
- Presentzia digitala: *Google myBussines*. Fidelizazio estrategiak diseinatzekoan posizionamendua hobetzeko (**ERTAINA-ALTUA**)
- Bezeroekiko harremanen kudeaketa: CRM, bezeroei buruz dugun informazioa eta haiekin harremanetan jartzeko bide eta aukera berriak garatzeko (**ERTAINA-ALTUA**)
- Inbertsiorako laguntza programa bat diseinatzea
- Ekipamendua eta softwarea erosten laguntzeko (**ERTAINA**)

JUANJE MARGOAK

T. 627 818 247

Zure etxebizitzaren hobetzeko prest

Amaia igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Baserrien eta eraikinen zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
-Ilgogailu eta 0 kotara proiektuak -Fatxadak isolatzeko proiektuak

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati

3. Sentsibilizazioa eta komunitatea

- **Oñatiko saltokien serbitutzia**
-Banakako serbitutzia. Saltoki ereduaz aztertzea, balio erantsia nola eman diezaikeen identifikatzeko (ALUA)
- **Zerbitzu aurreratu integralak: sektorean batera landu behar diren eta bezeroentzako balioa ematen duten ekimenen azterketa eta diseinua**
-Etxez etxeko banaketa sistema (ERTAINA-ALUA)
-Oñatiko erakusleho digitala (ALUA)
-Erosketa esperientziaren diseinua.
Kontsumitzaileek erosketa-esperientzia nola bizi duten aztertzeko programa bat diseinatzea (ERTAINA-ALUA)
-Fidelizazio tresnak. Tresna eta euskarri posibleen azterketa Oñatiko bezeroen arketipo bakoitzaren esperientziaren hobekuntza maximizatzeko: asoziazio-txartelen analisia, *push* marketin sistemak, panel digitalak, gazteei begirako deskontu bereziak, etxez etxeko zerbitzuak, turistentzako bonoak... (ERTAINA-ALUA)

4. Ekintzailatza eta enpresen arteko lankidetzak

- **Ekintzailatzaren kudeaketa**
-Ekimen ekintzaileei laguntzea. Merkataritza-eta zerbitzu-sektorerako programa espezifikoak ('Oñatin Elkarrekin Ekin' erakoa) garatzea (ERTAINA)
-Enpresak erakartzea. Antzeko ezaugarriak dituzten udalerrietan finkatuta dauden enpresa lehiakorren hazkunderaren alde lan egitea (ERTAINA-ALUA)
- **Enpresen arteko lankidetzak**
-Sare sozialen kudeaketa. Adibidez, *Community Manager* zerbitzuak kontratatzea saltokientzat, eskaparatistak, barne-aholkulariak... (ERTAINA)
-Baliabideen kudeaketa partekatua. Saltokiek beren enpresarentzat behar izaten dituzten baliabideak (altzariak, inprimagailuak, altzariak, karpak...) eta zerbitzuak partekatzea (BAXUA)
-Merkataritza/Ostalaritza. Saltokien eta tabernen arteko ekimen konbinatu bat garatzea, saltokiek tabernei elementuak lagatzeko, eta taberneek saltokiei pintxoak/edariak emateko, esperientzia desberdinen bidez (ERTAINA-ALUA)

Dokumentuak
osorik
irakurtzeko
eskaneatu
QRak:



EKINTZA PLANA



5. Komunikazioa eta dinamizazioa

- **Komunikazioa eta Marketina**
-Oñatiko merkataritzaren kontakizuna, berezkoaren eta tokikoaren erakargarritasuna azpimarratuz (ERTAINA)
-Komunikazio plana (ERTAINA-ALUA)
- **Sentsibilizazio kanpainak**
-Orokorrak (ERTAINA-ALUA)
-Eskolak eta ikastetxeak. *RoI Play* erako dinamika egitea gazteentzako espazioetan, hurbileko merkataritzaren egoerarekin sentsibilizatzeko (ERTAINA)
- **Barne komunikazioa**
-Merkataritza ekosistemako eragileen arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetzea (ERTAINA)
- **Dinamizazio berritua**
-Dinamizazio jardura segmentatuak: gazteei zuzenduta, logika digitalean eta sare sozialetan oinarrituta; familiei zuzenduta, kaleko jardura klasikoak eta kulturarekin partekatutako jarduerak... (ERTAINA-ALUA)

6. Gobernantza eta elkarlanean

- **Rolen garapenera eta onarpenaren lidergoa**
-Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak-prozesuetan alderdi bakoitzaren benetako gaitasunak modu errealistan onartzea (ALUA)
- **TXANDA merkatarien elkarteak bidefinitzea**
-Elkarte ereduaren azterketa, bezeroek egun dituzten behar eta ohiturak aintzat hartuz (ALUA +)
-Ostalaritza integratzea. Txanda elkartearen modu orokorrean sartzeko formulak aztertzea (ERTAINA-ALUA)
-Langileak kontratatzea laguntzak. Elkartearen kudeaketa profesionalean aurrera egitea planteatzen da, ekimenak, proiektuak eta zerbitzuak modu errealistan dinamizatuko dituen laguntza teknikoaren bidez (ALUA)
- **Merkataritza Mahaia, Hiri Ekonomiako Klusterra eratu aurreko urrats gisa**
-Tokiko merkataritzako eragile guztien eta, oro har, hiri-ekonomiaren topagune gisa funtzionatuko duen lan-foroa eratzea (ALUA)

DIAGNOSTIKOA



Zuntza 600 Mb | Mugikorra 7 GB

Simetrikotik + Dei mugagabeak

IRAUNKORTASUNIK GABE

42 € HILEAN

BETIRAKO

KONTRATATU ZURE GUUK ZUNTZA LIZKER INFORMATIKA DENDAN

Alteko Kalea, 32, 20560 Oñati
943 09 06 00

guuk

ZUNTZA MUGIKORRA TB

BEZa baina. Ebaluazioa 2020/11/30ra arte egongo da indarrean Euzkoan eta Nafarroan. Linea osagarriak edo 1GB-ko doako Guuk tarifa: "Zuntza + Mugikorra" eskaintza hautatu bada, linea osagarriak "Mugikorra Bakarrik" tarifa linea prezioak izango dituzte, GB eta doako minutu kopuru berarekin. 1GB-ko doako Guuk tarifen kasuan, prezio berria 6,96€/hil izango da. "Zuntza + Mugikorra" paketea baliatzen duen mugikorraren gailuaren prezioa 4 izango da. Linea nagusia kontsumitu hartu gabe. "Zuntza + Mugikorra" eskaintzak ez du iraunkortasunik edo zigorrik izango. "Mugikorra Bakarrik" kontratua: finko eta mugikorraren nazionalitateko dei mugagabeak, 7GB eta 40MB min. Baga hori gailutzean, abiadura 16 Kb/s-ia jabsiko da. Nahi duzuen eraman diezazakezu beza zerbitzuetan, baina bideratzailea 30 eguneko epean itzuli beharko duzu; bestela, 1214-ko zigor bat ordaindu beharko duzu (BEZa baina). Kontsultatu gureak baldietzak heinean: www.guuk.es

Urtebete, funtziotan

lazko urtarrilean jarri zen martxan Aloña Mendi kirol elkarteko zuzendaritza berritzeko hauteskunde prozesua. Ez zen hautagaririk aurkeztu eta, beraz, Anton Inzak jarraitzen du presidente karguan, funtziotan. Oraingoz, ez du ultimatumik eman nahi, baina erreleboa gehiegi ez luzatzea espero du.

Duela urtebete, iazko urtarrilaren 22an, ez ohiko batzarra burutu zuen Aloña Mendi kirol elkarteak, zuzendaritza taldea berritzeko prozesuari hasiera emanez. Ez zen hautagaririk aurkeztu, eta handik gutxira Covid-19a iritsi zen, gainerako gai gehienak bigarren maila batean utziz. Urtebeteren ondoren, egoera zein den jakin guran izan gara presidente karguan jardunean den Anton Inzarekin.

Zertan geratu zen zuzendaritza berritzeko prozesua?

Ez zen hautagaitzarik aurkeztu, hartarako jarritako epean. Hori gerta zitekeela bagenekien. Ni neu ere ez nintzen aurkeztu bere egunean; nire bila etorri ziren. Beraz, badaezpada, kargu horretarako gure ustez egokiak izan daitezkeen pertsonen zerrenda bat ere prest geneukan. Neuk deitu nion zerrendako lehenengoari, baina ezin zuela erantzun zidan, beste ardura batzuk zitu elako.

Hurrengoarengana jo aurretik, osasun arazo bat agertu zitzaidan, eta bigarren maila batean utzi nuen gai hau. Gainera, handik gutxira pandemia iritsi zen eta prozesua etenda geratu zen.


Ondorioz...?

Ofizialki, geuk jarraitzen dugu zuzendaritzan, funtziotan.

Nik badakit, gaur egun bizi dugun egoerarekin, jendeak beste buruhauste batzuk dituela, eta,

34 URTE

Anton Inzak 34 urte daramatza Aloña Mendi kirol elkarteko presidente karguan



CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behe • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

gainera, nik ez daukat urgen-tziarik. Orain arteko martxan jarraitzeko moduan nago. Baina ez da komeni egoera hau gehiegi luzatzerik; ia 34 urte daramat Aloña Mendiko presidente karguan, eta uste dut erreleboa beharrezkoa dela; betiko inertiak aldatu eta haize freskoa ekarriko duen jendea behar dela uste dut.

Ultimatuma ematea pentsatu duzu?

Ez nuke nahi. Egokiena izango zen erreleboa modu naturalean egitea, ni ondo nagoen bitartean. 64 urte betetzera noa, jada abisu bat izan dut, eta, beraz, uste dut momentua iritsi dela erreleboa emateko. Ni prest egongo naiz laguntzeko, berriek hala nahi badute. Bere egunean nik Enrike Zubiagirreraren babesa izan nuen, eta, beharrezkoa bada, neure laguntza eta babes osoa izango du presidente berriak.

Askotan esaten didate ez dela inor aurkeztuko, geuk jarraitu beharko dugula..., eta antzeko gauzak, eta horrek zer pentsatua ematen dit. Baina hordagoa jotzekotan, aurrena klub barruan botako nuke.

34 urte daramatzazu presidente karguan, eta hori entzuteak agian atzera egin araziko dio jende askori.

Bai, izan daiteke, baina horrek ez luke oztopo izan behar. Gaur egun gauzak aldatu egin dira, eta zikloak motzagoak izaten dira, normala den moduan. Kontua da, gaur egun jende gutxi dagoela halako ardurak hartzeko prest, bai kirolean eta baita beste arlo batzuetako elkarteetan ere.

Beste aukerarik pentsatu al duzue?

Aloña Mendik bere baitan dituen 15 sekzioetako ordezkariak txandaka zuzendaritza orokorra hartzea izan daiteke beste aukera bat. Herri batzuetan hala egiten dute, baina nik, aukeran, uste dut hobe dela presidentea ez izatea sekzio jakin bateko juntako kidea.

"Gehiago inbertitu beharko litzateke kirolean"

Gizarteko beste hainbat arlotan bezala, kirolak ere garai zailak bizi ditu, Covid-19a dela eta, baina, zorionez, albiste onik ere izan dugu berriki: kiroldegiko igerileku berriak martxan daude, eta beste instalazioak ere laster izango dira prest.

Bai. Hausnarketa eta eztabaida saio luzeak izan genituen: hor bertan egin ote zitekeen, beste nonbaiten kiroldegi berria eraiki behar ote zen... Azkenean bertan egitea erabaki zen, eta, entzun dudanez, jendea gustura dago. Gainera, epe barruan egin dira obrak, eta hori ere eskertzekoa da. Pozik gaude, jakina, baina kontua da, azpiegitura mailan behar handiak daudela oraindik ere Oñatin.

Zein dira lehentasunak?

Hasteko, esan nahi nuke, 2019ko hauteskundeetan atarian, lehen aldiz, udaletxean ordezkartuta dauden bi alderdiak etorri zirela gure premien berri entzutera.

Garbi dago, Oñatin kirol asko egiten dela, baita Aloña Menditik kanpora ere, eta udala gustura dagoela. Baina gure irudipena da, inguruko herriei alderatuz, kirol instalazio txarragoak ditugula, eta beste herri batzuetan samurrago egiten dituztela instalazio berriak.

Gure ustez gehiago inbertitu beharko litzateke kirolean, eta ez da politika kontua. Guk harreman ona dugu udalarekin, bai orain eta baita lehen ere, baina uste dugu ez dela nahikoa inbertitzen. Orain inbertsio inportantea egin da kiroldegian, baina, esan bezala, premia handiak daude oraindik ere.

Erabiltzaile kopuruari begiratuta, uste dut Azkoagaini eman behar zaiola lehen-tasuna (bide batez, irisgarritasuna eta erabiltzaileen segurtasuna bermatuz) eta atletismo pista oinarritzko baten beharra ere agerikoa da.



ERRELEBOA

Erreleboa emateko garaia iritsi da, eta errelebo hori modu naturalean egin nahi nuke, ondo nagoen bitartean

KIROLA ETA COVID-a

Kirola egitea osasungarria da eta osasun neurriak zainduta, kirola egiteko aukerak egon badaude; baina egoera honetan ez dut ikusten lehiaketak martxan jartzeko beharrik

Gainerakoan, askotan esan izan duzu kluba egoera onean dagoela ekonomikoki, eta alde horretatik ez duela buruhauste handirik izango zuzendaritza berriak.

Hala da. Elkarte gutxi egongo dira Aloña Mendik duen oinarri ekonomikoarekin. Guk beti izan dugu dirua aurrezteko ohitura, momentu txarretarako. Egia da, azken urteotan tabernatik ez datorrela benefizio handirik, baina klubaren egoera ekonomikoa ona da, eta ondare inportantea dauka, gainera (bulegoak dauden eraikina eta taberna).

Bestalde, kirol arloan klubeko sailek funtzionamendu autonomoa dute, eta gure lana izaten da elkarren arteko funtzionamendua koordinatzea, arazoak sortzen direnean (oso gutxitan) irtenbideak aurkitzea, udaletik eta aldunditik jasotzen ditugun dirulaguntzak banatzea, eta erakundeetan aurrean kluba ordezkatzeko. Ez du aparteko de-dikaziorik eskatzen.

lazko batzar berezian beste puntu inportante bat ere onartu zen: taberna eta LAE lizentzia (kiniela, lotoa...)

kudeatzeaz arduratuko den sozietate mugatu bat eratzea. Zertan da?

Ari gara elkarteak eratzeko urratsak ematen (CIFa, estatutuak...), baina orain, adibidez, tabernako langile batzuk ABEE/ERTE egoeran daude, eta horrek geldotu egin du prozesua.

Gorgomendi S.L. izango da tabernaren eta LAEren gestioaz arduratuko den elkartearen izena, eta Aloña Mendi K.E.-a izango da bazkide bakarra. Horrekin batera, Aloña Mendi kirol elkarteak 'Onura Publikodun Kirol Entitate' izendatuko dugu, eta, modu horretan, klubeko sail ezberdinetako babesleek onura fiskalak lortu ahal izango dituzte.

Nola baldintzatu du Covid-19ak klubaren jarduna?

Erabat. Kezka handia dago eta, normala den moduan, hainbat taldek lehiatzeari uko egin diote. Nire iritziz, denboraldi honetako lehiaketak bertan behera geratu beharko lirateke. Kirola egitea oso ona da osasun aldetik, baina kirola egiteko aukera bestela ere badago, osasun neurriak beteta. Ez dut ikusten lehiaketak martxan jartzeko beharrik. ■



EUKALIPTOA AUZITAN

Eukaliptoia eztabaida iturri bilakatu da azkenaldian. Pinuen gaitzak eragindako krisiari aurre egiteko eukaliptoaren aldeko apustua egiten ari dira baso-jabe asko, hazkunde azkarreko zuhaitza delako eta etekin ekonomiko handiagoa dakarrelako. Baina, bestalde, zientzialariek egindako azterketen arabera, eukaliptoak eragin kaltegarria du erreketan, lurzoruan, landaredian, hegaztietan, intsektuetan, anfibiotan... biodibertsitatean, oro har. Ekologian katedraduna eta EHUko irakaslea den Arturo Elosegik urteak daramatza eukalipto basoek hemengo ekosisteman duten eragina aztertzen, eta Eusko Jaurlaritzaren enkarguz burutu duen ikerketa lanaren emaitzak azaldu zituen Oñatin, Natur Eskolak antolatutako Ingurumen Jardunaldien baitan.

Zenbateraino dago hedatua eukaliptoia gure inguruan?

Euskadi mailan, azaleraren %3 inguru estaltzen du gaur egun. Ez da asko, baina, bereziki Bizkaiko kostaldeko zenbait lekutan (Lemoiz, Bakio...) asko dago, eta, gainera, oso azkar ari da zabaltzen; azken hiru hamarkadetan lau bider areagotu da, eta orain asko ari da zabaltzen Gipuzkoa aldean.

Zergatik ari da zabaltzen hain azkar eukaliptoia?

Neurri batean, Insignis pinuak eta, oro har, basogintza sektoreak bizi duen krisiaren ondorioz. Landare gaztea oso merke dago, eta badaude enpresa batzuk hori sustatzen ari direnak.

Eukaliptoaren zikloa askoz ere laburragoa da, ezta?

Bai, 14-15 urtean behin moztzen da, eta hiru aldiz birsortzen da enbor beretik. Hirugarren zikloa betetzean sustraietatik atera behar izaten da.

Urteak daramatzazu eukaliptoak hemengo biodibertsitatean duen eragina aztertzen, eta ondorioa ez omen da batere ona.

Gure ikerketa taldeak errekei erreparatzen die. Eukaliptoak erreketan duen eragina aztertzen dugu, eta lehendik ere ikusita geneukan bazirela hainbat inpaktu. Orain, mundu mailan eta, bereziki, iberiar penintsulako eukaliptoari buruz argitaratuta

dagoena aztertu dugu, eta guk susmatzen genuena konfirmatu ez ezik, pentsatzen genuena baino inpaktu handiagoak dardela berretsi ahal izan dugu; hau da, ingurumenaren edozein arlo ikertu denean, garbi ikusten da bertako basoa baino okerragoa dela, eta pinudiak baino okerragoa ere badela eukaliptoia.

Hainbat eremu edo arlotatik aztertu duzue eukaliptoaren eragina: lurraren emankortasuna, likenak, anfibiak, hegaztiak... Zer nabarmenduko zenuke eragin horien artetik?

Esango nuke, sistematikoena dela biodibertsitatearen gainean ikusten den eragina. Edozein atali erreparatzen diozula (izan likenak, landareak, anfibiak, hegaztiak...) askoz ere urriagoak dira eukalipto basoetan, beste basoetan baino. Oso nabarmena da hori.

Zergatik gertatzen da hori?

Eukaliptoia espezie arrotza delako hemen, eta bertako biodibertsitatea hemengo espezieetara dagoelako moldatuta. Gainera, eukaliptoaren hostoak nahiko toxikoak dira, olioia ere askatzen dute eta horrek lurzoruari eragiten dio. Bestalde, basoa oso maiz moztzen denez, ez du denborari ematen horien pean bizi ohi diren hainbat espezi hazteko. Mila arrazoi daude.

Biodibertsitatearen ikuspuntutik eukalipto basoa pobreagoa dela diozu, baina pobreagoa izanik ere, onargarria al da?

Hori ez da zientzialari bati egin beharreko galdera, gizarteari baizik. Zenbat biodibertsitate galtzeko prest dago gizartea?

Europa mailan badago lege garrantzitsu bat, *EB Habitat Aztertarauak*, biodibertsitatea kontserbatzeko konpromisoa jasotzen duena, eta hortik sortu ziren *Natura 2000 Sarea* eta bestelako neurriak. Kontua da, milaka hektareatan baso mota bat kendu, kasu honetan pinudiak, eta biodibertsitatearentzat pobreagoa den beste baso mota

**AZKEN URTEETAN
LAU BIDER
AREAGOTU DA
EUKALIPTOA
EUSKADI
MAILAN, ETA
ORAIN ASKO ARI
DA ZABALTZEN
GIPUZKOA
ALDEAN**

bat sartzen badugu, zalantzarik gabe horrek Euskal Herriko biodibertsitatearen gainbehera ekarriko du, eta horrek eragingo du Euskal Herriak ez betetzea Europar Batasunaren helburua. Beraz, esango nuke ez dela onargarria, baina hori erabaki politikoa da.

Sute arriskua ere handiagoa omen da eukalipto basoetan. Zergatik?

Eukaliptoak berez nahikoa erraz sutzen den espeziea da. Esan dudan moduan, olioak dauzka hostoetan eta, gainera, azala tira moduko batzuetan askatzen da, eta horri esker sugarrak samurrago eramaten ditu haizeak. Bestalde, suteek zuhaitzari berari mesede egiten diotela ikusi da, eukaliptoaren haziak hobeto ernaltzen baitira suteen ondoren.

Dena den, sute kontuak asko aldatzen dira, ez bakarrik landarediaren arabera, baita gizartearen arabera ere. Bizkaiko eta Kantabriako kostaldeak, adibidez, oso antzekoak dira, eta bietan dago eukalipto asko, baina askoz gehiago erretzen dira aldameneko komunitatean.

Eukalipto basoetan gertatzen den lur galera handiez ere ohartarazi zenuen hitzaldian.

Bai, hala da. Euskal Herri mailan oraindik ez da aztertu eukaliptoen kasuan; batez ere pinudiak aztertu izan dira, eta ikusi da matarrasa egitearen ondorioz lur galera handiak gertatzen direla, batez ere leku malkartsuetan, sail handiak mozten direnean, eta makina handiak ibiltzen direnean gora eta behera. Beraz, kontuan hartuta eukaliptoak mairago mozten dela, horrek irado-



«Euskadi mailan azaleraren %3 inguru estaltzen du gaur egun eukaliptoak. Ez da asko, baina oso azkar ari da zabaltzen»

«Ingurumenaren edozein arlo ikertu denean, garbi ikusten bertako basoa baino okerreagoa dela, eta pinuak baino okerreagoa ere badela eukaliptoak»

«Kanpoko enpresak ari dira hemengo basoak erosten oso merke, eukaliptoak landatzeko»

Arturo Elosegi
EHU irakaslea

kitzen du lur galera handiak gerta daitezkeela, eta lur geruza hori berreskuratzeko denbora asko behar izaten da.

Eukalipto basoak klima alaketari aurre egiteko egokiak direla aipatu izan da, baina zuk zalantzan jartzen duzu. Zergatik?

Enborrak azkar hazten dira eta horrek esan nahi du karbono asko metatzen dela. Hori hala da, baina argazki osoaren zati txiki bat baino ez da. Enborrean ez ezik, orbelean, humusean... ere badago karbonoa, eta esan dugu lehen ere, alde horretatik nahiko pobreak direla eukaliptoak.

Bestalde, karbonoa zurean metatzen da, baina kontuan hartu behar da gero zur horrekin zer egiten den. Eukaliptoarekin normalean papera egiten da, eta paperaren bizia nahiko motza da. Beraz, karbono horrek askoz ere denbora gutxiago egiten du atmosferatik kanpora, beste baso mota batzuetan baino. Gero eta gehiago ikusten da,

baso zaharrak direla karbonoa metatzeko egokiak.

Baso jabearen ikuspuntutik ulergarria izan daitezke eukaliptoak landatu gura izatea, errentagarritasunaren aldetik.

Bai, baten batek hala pentsa dezake, baina ikusteko dago oraindik zenbatekoa den errentagarritasuna. Gipuzkoan sartzen ari diren eukalipto mota (Nitens) ez omen da hain emankorra.

Bestalde, ikusteko dago merkatuak zein gorabehera izango duen etorkizunean. Oso zaila da gureak baino askoz laua goak diren eta askoz ere eskulan merkeagoa duten merkatuekin lehiatzea. Paraguayan, esaterako, hemengo bezalako eukaliptoak landatzen ari dira, milaka. Beraz hori guztiori ikusteko dago oraindik.

Gainera, ekonomia ikuspuntu globalago batetik ikusi beharko genuke. Pentsatzen badugu basoa soilik egurra dela, ari gara basoaren parte txiki bat ikusten; basoak, egurrez aparte, perretxikoak sortzen ditu, ura, biodibertsitatea... eta horrek gizarteari, oro har, izugarritzko onura ekartzen dio. Kontua da, baso jabeek ezin izaten dutela horregatik kobratu, baina hori beste kontu bat da. Hori da ekonomia nola daukagun antolatuta, eta ez hainbeste baso mota batek zenbat diru ematen duen.

Kanpoko enpresak ari omen dira hemengo baso sailak erosten oso merke, eukaliptoak landatzeko.

Bai, eta niri behintzat kezka-garria iruditzen zait. Diru asko ordainduko balute, gutxienez, ulertuko nuke, baina iruditzen

Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Esatu aurrekontua konprometzu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

zait jendea ari dela lau sose-tan lur hori oparitzen. Eta, gaur egun, agian lur horrek ez du balio ekonomiko handirik, baina ez dakizu etorkizunean zer gerta daitekeen.

Eusko Jaurlaritzaren enkar-guz egin duzue eukaliptoaren inguruko azterlan hau. Ondorioak ikusita, zein neurri hartu behar lukete administrazioek?

Hasteko, publikoak diren lurretako baso-politikak birpentsatu behar lituzkete, nire ustez. Badira eukaliptoak (eta hazkunde azkarreko beste espezie batzuk ere bai) udalerri edo diputazioen jabetzako lur publikoetan, eta uste dut ez dela oso logikoa.

Bestalde, 1993an onartu zen Euskadiko baso planean 'Babes Basoa'-ren figura jaso zen, leku bereziki hauskorretan dau-



Eukaliptoak erreketan duen eragina aztertzeko lanaren irudia

den basoak (leku malkarretan, urtegi inguruetan...) babesteko helburuarekin; 120.000tik gora hektarea babestu behar zirela aipatzen zen, eta oraindik ez da bakar bat bera ere izendatu. Hor ere badago zere egina.

Eta, bestalde, hasi beharko lukete hobeto erregulatzen lur pribatueta egiten den kudeaketa mota, ematen diren hainbat praktika kaltegarri (toki

«Udalen eta diputazioen jabetzako lur publikoetan eukaliptoak landatzen ari dira, eta uste dut ez dela oso logikoa»

malkarretan egiten diren mata-rrasa handiak, adibidez) ekiditeko.

Eta baso jabeek zer egin behar lukete zure ustez?

Lehenengo eta behin, elkartu, eta kooperatiba edo bestelako elkarte bat sortu, basoen kudeaketa hobetzeko.

Bestetik, pentsatu beharko lukete ea zura ote den interesatzen zaien gauza bakarra. Baso jabe asko baserritarrek dira, baina ez dira bakarrik egurretik bizi; nekazal turismoak, zalditegiak, edo ingurumenarekin lotuta dauden aktibitateek gero eta garrantzi handiagoa dute gure gizartean, eta pentsatzekoa da horko bezeroek gero eta kalitate hobea eskatuko dutela paisaiaren ikuspuntutik, besteak beste.

Beste baso jabe batzuk kaleta-

ANDONI ALTUNA

Baso Jabeen Elkarteko Debagoieneko koordinatzailea

"Oñatin ez dut ikusten eukaliptoaren aldeko joera argirik dagoenik"

Gipuzkoako Baso-Jabeen Elkarteko (GEBE) Debagoieneko koordinatzailea da Andoni Altuna oñatiarra. Berarekin hitz egin dugu eukaliptoaz, Oñatiko basoen egoeraz, eta baso-jabeek dituzten erronkez.

Gure basoak eukaliptoz estaltzearen arriskuez ohartarazi dute. Nola ikusten duzu gaia?

Oinarri handirik gabe alarmismoa sortzea dela iruditzen zait. Basoak eukaliptoz betetzeaz ari da, eta Oñatin, une hone-tan, 8,9 Ha. baino ez daude erregistratuta, milatik bat, eta Gipuzkoan %1. Horrenbestez, ez dut Oñatiarrak larritzeko inolako arrazoirik ikusten.

Baina Bizkaian nahiko ugaria da eukaliptoak, eta Gipuzkoan ere azkar ari omen da hedatzen. Oñatin ez duzu horretarako aukerarik ikusten?

Oñatin gaur egun ia ez dago eukaliptorik eta, jakina, hektarea bat baldin badaukazu, eta beste bat landatzen baduzu, bikoitza da, baina bi hektarea dira. Baso eremu osoarekin alderatuz, ez dauka garrantzirik. Azken 3 urteetan 18Ha.-ko azalera okupatzen zuten insignis partzelak moztu dira, eta hauen lekuan *sugi/kryptomeria japonica* (64 Ha.) eta itsas pinua (56Ha.) sartu dira.

Baina bertako biodiber-



tsitatearentzat kaltegarria omen da eukaliptoak. Ados al zaude?

Ez nago ados. Zuhaitz heldu guztiek antzerako biodibertsitate aberastasuna dute. Ez dira zuhaitz espezieak baso bateko biodibertsitatea bal-dintzatzen dutenak, bertan egiten den kudeaketa-mota baizik, eta baso-kudeaketaren jasangarritasuna bermatzeko, baditugu PEFC ziurtagiria be-zalako erregulazio-tresnak.

Askos esan da eukaliptoaren

inguruan, eta horren ondorioz, zuhaitz honen inguruko ideia zehatza daukatenak ugari dira. Bada, Urriskateko (hiltegiaren atzealdea) edota Duruan baserri bideko eukalipto-sailak bisitatzerako gonbidatuko nituzke horiek guztiak. Zonalde horietako eukaliptoek 40 urte inguru dituzte, eta, orain bi urte egin zitzaizen bigarren mozketa. Bertan, eukaliptoek landare mota desberdinekin eta txarriarekin (haritza, pegoa, urkia,

rrak dira, eta beren aitonek landatutako sail baten jabe dira. Eta horiei galdetu beharko litzaieke ea hortik atera dezaketen diruak diferentziarik markatuko ote duen beraien bizitzetan, eta hori den benetan nahi dutena, edo nahiago ote dute baso bat eduki, besterik gabe, babeserako.

Baso jabe mota asko daude; badira banketxeak, badira enpresa handiak... Beraz, guztien artean pentsatu behar genuke zer nolako Euskal Herria nahi dugun etorkizunerako.

Eta gainerako herritarrek, kale-tarrek, zer egin dezakete?

Nik uste dut basogintza eredu honek islatzen duela baserriaren porrota. Basogintza industria hau ari da bultzatzen, batez ere baserriak hustutzen ari direlako. Orduan, aurreneko gauza litza-

teke baserrirei eustea, eta horretarako ezagutzen dudan formula bakarra da, bertako baserriarren produktuak erostea. Euskal Herrian dagoen biztanleriarekin sobran eman beharko luke bertako baserri guztiak mantentzeko eta, hala ere, inportatu egin beharko genuke.

Beste zenbait lekutan, kaletarrek bildu eta baso sailak erosten ari dira lur horren zaintza eta kudeaketa egokia egiteko helburuarekin, kontserbazioari garrantzia emanez eta bertako espezieak landatuz. Ekimen posible asko daude.

Pandemiak gure arreta osoa bereganatu du, baina ez dugu ahaztu behar ingurumen arazo larria daukagula, eta beharbada une egokia dela herri mendiak berreskuratzen hasteko. ■

Udalaren basogintza printzipioak

Udalak 2011ko azaroaren 24an onartu zuen aho batez **Biodibertsitatearen Aldeko Konpromisoa**, eta 2012ko 'Basogintza Herri-jorran' prozesuaren ondoren, **baso politikaren printzipioak** onartu zituen:

1. egungo konifero landaketak ustiatu eta gero, egur ekoizpena albo batera utzi, hau da, egur-ekoizpena zuzendutako konifero landaketarik ez egin.
2. konifero gehiagorik ez sartu.
3. bertako landaretza bultzatu, batez ere Quercus generokoak eta bereziki haritza.
4. aurrera begira, zuhaitzak landatzen ibili beharrean, birsorkuntza naturala bilatu, betiere, plan-gintza baten barruan eta zaintza baten pean.
5. pista berririk ez zabaldu eta Parke Naturalaren garapenean dauden pisten erabilera mugatu.
6. sarbide batzuk kontrolatu (Iturri-gorrikoa kasu).
7. bioaniztasunaren azterketa bultzatu (dugun fauna eta flora ezagutu).
8. su-egurra atera bakarrik mendiak ematen duena, gehiago ez. Egur-hila ere utzi mendian..
9. Aizkorriko parke naturalak babestutako eremuetan lurra behar bezala babestuko da

gaztainondoa...) daukaten bizikidetzak nolakoa den ikusteko aukera paregabea dago.

Era berean, garai batean ugariak ziren landaretza mota guztiak nola desagertu diren ikusteko, Burgamendi eta Usabakotxena sakanetako pagadiak ikustera ere animatzen dut jendea. Eguzki izpiak barrura sartzea eragotziz pagoen inbasioa izan da txilardiak, aranondoak, onddoak... desagerrarazi dituena. Azkenik, aipatzekoa da Kortatxon gertatzen ari dena ere, pagoek sortzen duten transpirazioaren ondorioz, bertako zohikaztegia lehortzen ari da.

Kanpoko enpresak ari omen dira baso sailak erosten prezio oso merkeetan.

Gaur egungo bizimoduek ez daukate baserriarentzat tokirik, lehengo baserriarren oinordekoak landa-sektoretik oso aldenduta daude; beraien mugariak non dauden ere ez dakite eta beraien baso-eremuak kudeatzearen inguruan ez dute ezer jakin nahi. Horrek, Oñatin lur-sailak merka-

tuko prezioan saltzea ekarri du, duela urte batzuk baino askoz merkeago, alegia. Bestalde, nik dakidala behintzat, Oñatiko lursailak erosten ari den kanpoko enpresarik ez dago. Hala ere, horrela izango balitz, nori saldu erabaki behar duena jabea litzateke, nor bestela?

Zein da Oñatiko basoen ar-gazkia gaur egun?

Herri pribilegiatua kontsideratu dezakegu Oñati. Gure herriak 10.754 Ha-ko azalera dauka, eta horietatik 7.890 Ha. basoak dira (%73,36), munduko erreferentearen (Finlandia %73,11) gainetik. Benetan harro egoteko arrazoia dela uste dut. Espeziei dagokienean, koniferekin okupatzen dute baso-azaleraren %62-a, eta gainontzeko %38-a hostozabalek. Intsinis pinua da, 2.740Ha.-rekin (%34,73), espezie nagusia, eta ondoren, 2.050 Ha.-rekin (%25,98), pagoa daukagu. Jabetzari dagokionez, %81-a pribatua da eta publikoa %19-a. Lortzen diren etekinak murriztu egin

diren arren, nekazaritza arloan gehien irauten duen landa-jarduera da basogintza.

Baina basoen arazo nagusia belaunaldi-erreleboan dago. Adineko jendea da gaur egun baso-jardueraz arduratzen dena; hots, baserria, nekazaritza eta basoa hurbiletik bizi izan duten pertsonak. Izan ere, gaur egungo gazteek bala dute basogintza-kudeaketan interesik?

Banda marroiak pinuetan eragindako krisia zertan da?

Banda marroiaren onddoa gurekin daukagu, eta insignis pinudiak, afekzio maila ezberdinean bada ere, infektatu egin dira. Batzuk errekupe-ratu egin dira, baina beste batzuk ez. Fumigaziora jo da soluziobide moduan, baina kobrea erabili ordez, faunarentzat kaltegarriak ez diren esentzia naturalak probatzen ari dira. Prozesua motela da baina emaitza harrigarriak lortzen ari dira. Hala ere, moztan diren intsinis pinudien ordez, onddo-arekiko erresistenteak diren beste zuhaitz espezie

batzuk ari dira landatzen.

Zein dira etorkizuneko erronkak, zure ustez?

Basoak bertan behera ez uztea, ez abandonatzea. Basoa kudeatu egin behar da, baina horrek konpromisoa eta dirua eskatzen du, eta hori ez dago denen eskura.

Horretarako, kontuan izan behar dugu zuhaitz bakoitzaren errendimendua desberdina dela. Adibidez, haritzak 3,3 m³ ematen ditu urte eta Ha. bakoitzeko; pagoak 4,62 m³, intsinis pinuak 8,5 m³ eta eukaliptoak 30 m³.

Halaber, kontuan izan behar dugu zer ebaketa-ziklo dituen merkaturatzeko zura lortzeko. Haritz eta pagoen kasuan, 60 urtetik gorako zikloak behar dira, insignis pinuekin 30 urtekoak eta eukaliptoaren kasuan 14 urtetik aurrerakoak.

Jabeak bere basoaren kudeatzailea izan behar du, bere bizi-zikloan beharrezkoa den kudeaketa jasagarria bertutuko duten espezie egokiekin diseinatu. ■

"Osasun neurriak zainduta, baina uste dugu arrazoi asko ditugula kalera irteteko martxoaren 8an"



IRATI GARAI ETA NAHIA BARRENA
Oñatiko Sare Feministako kideak

Badator aurten ere martxoaren 8a. Nola bizi duzue egun hori?

Mugimendu feministako kide garen aldetik, gure eskubideen alde borrokatzeko eta gure aldarrikapenak plazara ateratzeko eguna da. Mugimendu feminista urte osoan ari da lanean, baina halako egunak egokiak dira mobilizazio jendetsuak antolatu eta gure aldarriari oihartzun handiago emateko. Azken urteetan ikusi ahal izan da jende askok markatuta daukala egun hori agendan.

Azken egunotan asko hitz egin da bizi dugun pandemia dela eta mobilizazio jendetsuak antolatzearen egokitasunaz. Hala ere, Euskal Herriko mugimendu feministak kaleak hartzeko deia luzatu du, eta Oñatin ere manifestazioa antolatu duzue, besteak beste.

« **Pandemia egoerak individualizatu egin gaitu, nolabait esatearren, baina gizarte honek eta, bereziki, emakumeok bizi ditugun arazoei modu kolektiboan erantzun behar diegu** »

Mugimendu feminista mugimendu bizia da, eta askotan erakutsi du ekintza desberdinak antolatzen dakiela, unean uneko egoeraren arabera. Eta aurten ere, bizi dugun egoera honetara egokituko gara, arduraz jokatzuz eta behar diren osasun neurri guztiak betez, baina uste dugu arrazoi asko ditugula kalera irteteko.

Kalera ateratzea sekula baino beharrezkoagoa dela esan du Euskal Herriko mugimendu feministak. Zergatik?

'Dena aldatu, sistema arrakalatu' lelopean egingo dira aurtengo M8-ko mobilizazioak. Azken urteetan bezala, bizitzak erdigunean jartzearen garrantzia aldarrikatuko dugu, pandemiak inoiz baino argiago erakutsi duelako beharrezkoa dela bizitza duinak eta bizigarriak erdigunera ekartzea.

Illo horretan, kapitala lehenesten duen sistema kapitalista, heteropatriarkala eta arrazista arrakalatu beharra dagoela aldarrikatuko dugu.

Pandemiak individualizatu egin gaitu, nolabait esatearren, bakoitzak bere burua zaintzearen garrantzia azpimarratu digute behin eta berriz, eta guk uste dugu elkar zaindu behar dugula, eta gure gizarteak eta, bereziki, emakumeok bizi dugun arazo askori modu kolektiboan erantzun behar diegula. Horregatik, gure apustua da sareak sortzea, eta inposatu dizkiguten egitura horietatik kanpo arrakalak aurkitzen saiatzea. Azken batean, gizarte edo sistema honen bazterretan daudenek behar gehiago dute elkartzeko eta kolektiboki borrokatzeko.

Aurten, gainera, Emakumeen V. Mundu Martxarekin batera dator martxoaren 8a.

Hala da, bai, Emakumeen Mundu Martxak bost urtean behin antolatzen duen ekintza internazionalista burutzen ari da azken asteotan, *Zubi guztien gainetik, mugarik ez! Transnazionalik ez!* lelopean. Migrazio politikak eta mugak salatzea da helburua, sistema kapitalista, arrazista eta kolonialaren tresnak direlako, eta pertsonak diskriminatu, zapaldu eta baztertu egiten dituelako. Illo horretan lanketa eta hausnarketa interesgarria egin dugu, gure ongizatea zein pribilegioren gainean bermatzen den eta zer erantzukizun dugun identifikatzeko ahaleginean.

Aurtengo mundu martxako azken ekitaldia martxoaren 6an egingo da Irun eta Hendaia arteko mugan, eta horrekin bat eginez, Oñatin ere ekitaldi bat antolatu dute herriko pentsionistek eta Lagun Leku elkarteek. Olakuako urmaeleen mural bat eta zapiak ipiniko dituzte, azken asteotan egindako hausnarketak jasotzen dituztenak, eta koaderno bat ere egongo da bertan egun osoan zehar, nahi duten herritar guztiek beraien gogoetak idazteko.

Zein da Oñatiko mugimendu feministaren osasuna egun, eta zein erronka nagusiak?

Sare Feminista da herriko feministak biltzen dituen taldea. Bere gorabeherekin, normala den moduan, baina bizirik dagoen mugimendua da. Azken urteotan, gainera, emakume gazteak biltzen dituen *Bargastak* taldea indartsu dator (30 bat kide dira, eta irekia da), eta beraiek ari dira sare feminista elikatzen. Batzuen indarra eta ilusioa, eta besteen esperientzia uztartzuz ari da bere bidea egiten Oñatiko Sare Feminista, eta hortxe jarraituko dugu erakundeei bultzatzen.

Bargastak taldeko kideak hausnarketa prozesu batean murgilduta daude azkenaldian. Mugak eta, kasu askotan, kriminalizazioa jasaten ari diren egoera honetan, gazteentzako harremantzeko eredu berriak sortzeko beharra ikusten dute. ■

martxoaren 8ko egitaraua

MARTXOAK 4

Zine Kluba: Entre nosotras
19:00 Kultur etxeko zine aretoan

MARTXOAK 7

Emakume artisauen azoka
10:00-14:30 Berdura plazan

MARTXOAK 8

Pentsiodunen elkarretaratzea
zapiekin
12:00 Olakuako 'Patotan'

MANIFESTAZIOA

19:00 Foruen plazan hasita

MARTXOAK 10

Dokumentala: Audre Lorde: The Berlin Years 1984-1992
Dagmar Schultz
Bertsio originala, gaztelerazko azpitituluekin - BOSE
19:00 Kultur etxeko zine aretoan

MARTXOAK 11

Zine Kluba: Las mil y una
19:00 Kultur etxeko zine aretoan

MARTXOAK 17

Solasaldia: Edertasun kanonak, lodifobiaren ikuspuntutik
18:00 Kultur etxeko zine aretoan

Izen-emateak: www.onati.eus / berdintasuna@onati.eus / 943780411



Mundu Martxaren amaiera ekitaldia

Martxoaren 6an, Emakumeen Mundu Martxaren V. Ekintzaren amaierarekin bat eginez, ekitaldia egingo da Olakuako urmael inguruan, Oñatiko pentsionistek eta Lagun Leku elkarteak antolatuta. Mundu Martxaren harira egin dituzten gogoetak jasotzen dituen murala eta zapiak ipiniko dituzte, eta koaderno bat ere egongo da bertan, nahi duten herritarrek beraien hausnarketak idazteko.

Euskal Herriko emakumeei gorazarre

Elkar Hezi ikastetxeko DBH-2ko ikasleek bigarren ebaluaketan zehar landutako proiektuaren emaitza plazaratu egingo dute martxoaren 26an, herriko zazpi gunetan egingo dituzten esketen bidez. Historian zehar, arrazoi bategatik edo bestegatik nabarmendu diren emakumeak izango dira protagonista. Oztopoak gaingiduz, esparru ezberdinetan erreferente izan diren emakumeak ezagutarazi, herritarrei azaldu, eta merezi duten aitortza egitea da ekimenaren helburua.

'Euskal kultura, begirada feministatik', Jabetze Eskolaren baitan

Emakumei zuzendutako Jabetze Eskolaren baitan 'Begiradak zorroztu. Euskal kultura begirada feministatik' izenburua duen ikastaroa egingo da martxoaren 26an (17:00-20:00) eta 27an (10:00-14:00), Iratxe Retolazak (Emagin) gidatuta (5€). Euskal kulturako hainbat ekoizpen eta dinamika taldean irakurri, ikusi eta entzungo dira bertan, elkarrekin horien inguruko gogoeta sustatzeko. Informazioa eta izen-ematea: berdintasuna@onati.eus / 943780411 (Berdintasuna saila).

garmendia tejas



25 urtetik gorako esperientzia daukagu eta urtean 150 obra baino gehiago egiten ditugu. Euskadin eta inguruetan erreferentzia gara estalkiak eta fatxadak eraiki eta birgaitzeko lanetan.

Basozabal Industriadea 5 • N-1, km 417

20212 Olaberria (Gipuzkoa)

T. 943 161 032

www.garmendiatejas.com



Azkar egiten dugu lan



Kalitate-prezio onena.



Osoko zerbitzua

Oñati eta San Prudentzio arteko errepidean hobekuntza lanak iragarri ditu Aldundiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak prentsa ohar bidez jakinarazi duenez, Oñati eta San Prudentzio arteko GI-2630 errepidean hainbat hobekuntza egitea aurreikusten du, industriaguneetarako eta herrigunerako irisgarritasuna hobetzeko eta, batez ere, erabiltzaile guztien segurtasuna hobetzeko helburuarekin, Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretakoa diputatuak azaldu duenez.

BI BIRIBILGUNE


Alde batetik bi biribilgune eraikiko dira Garibai auzoa eta Otadui kalea arteko zuzengunean, 700 metroko tartean. Lehena, Garibai auzoan egokituko da, ULMA Eraikuntza lantegiaren elkargunean. Errotonda honen bidez, ULMA Munazategi aldera zabaltzearen ondorioz aurreikusten den trafiko-hazkunderari erantzun nahi zaio. Foru Aldundia egiten ari da lurzoruen kudeaketa, baina ULMA hartuko du bere gain lanen finantzaketa eta exekuzioa. Biribilgune hau eraikitzeke lanak aurtan bertan hastea aurreikusten da (ekaina edo uztaila aldera hastea da asmoa, ustekaberik ez bada), eta, lanak baliatuz, Oñatiko udalak Garibai auzoko sarbidea hobetzeko bide-adarra egokituko du.

Bigarren biribilgunea GI-2630 errepideak eta Otadui kaleak bat egiten duten puntuan egokituko da, eta honen inguruan bi autobus geltoki ere egokituko dira, Oñatiko udalak eskatu bezala. Aurtan proiektua idatzi eta obra 2022an hastea aurreikusten da diputazioak

SEGURTASUNA HANDITU

Bidearen ezaugarriak eta inguruko bizilagunen kezka aintzat hartuz, abiadura muga 90 km/o.-tik 70 km/o.-ra murriztuko da GI-2630 errepidearen luzera osoan. Ildo horretan, Garibai auzoaren hasieran, Arriagakua baserriaren parean, murriztu egingo da galtzadaren zabalera, eta zintarriak dituzten irlatxo batzuk jarriko dira, trafikoa baretzeko eta lehentasunik gabeko oinezkoentzako pasabidea egokitzeke.

Bestalde, hiru bihurgunetan (Garibai eta Fanderia inguruan) mikro-aglomeratu geruza aplikatuko da hontzean, marruskadura-koefizientea handitu eta galtzadatik irtetearen ondoriozko istripuak murrizteko asmoz.



Goiko irudian daude adierazita GI-2630 errepideko zein puntutan egingo diren aktuazio nagusiak. Ezkerreko argazkian azaltzen da zein bihurgunetan aplikatuko den mikro-aglomeratua, istripu arriskua murrizteko asmoz.

Garibai-Munazategiko biribilgunea eraikitzeke lanak ekaina edo uztaila aldera hasteko asmoa du Ulma Taldeak

Arantzazuko Ama kalea eskolako sarrera-irteera orduetan bakarrik itxiko da aurrerantzean

COVID-19a dela eta, jende pilaketak ekiditeko asmoz, eskola inguruetakoa espazio publikoak egokitzea adostu zuten udalak eta herriko ikastetxeek. Hala, azken hilabeteotan trafikorako itxita egon da Arantzazuko Ama kalea, baina aurrerantzean eskolako sarrera-irteera orduetan bakarrik itxiko da, era honetan: goizez 8:25-8:55 eta 12:10-12:30, eta arratsaldez 14:15-14:35 eta 16:25-16:45. Haurren segurtasuna bermatzeaz gain, ibilgailuen zirkulazioa ahal den gutxien kaltetu nahi da modu honetan.



smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

Kultur ondarearen transmisiorako konpromisoa berretsi dute udalak eta ikastetxeek



Betidanik ahoz aho egin izan den kultur ondarearen transmisioa galtzen ari zela ikusirik, **Hurretik** egitasmoa jarri zuen abian udalak 2015ean, herriko ikastetxeekin lankidetzan, belaunaldien arteko transmisio hori bermatzeko helburuarekin. Proiektua gauzatzeko Euskaltzaleen Topagunea kontratatu zen, eta orain arte Lehen Hezkuntzan erabiltzeko 16 unitate didaktiko sortu dira (www.hurretik.eus atarian daude erabilgarri). Hezkuntza arlora mugatu barik, proiektua herritarren artean gizarteratzeko hainbat saio ere egin dira. Orain, bost urteko lanaren balantzea egin eta gaia elkarrekin garatzen jarraitzeko konpromisoa sinatu dute udalak eta herriko hiru ikastetxeetako ordezkariak.

■ DIRULAGUNTZA DEIALDIAK ■

GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZA

Garapenaren aldeko lankidetzak proiektuei laguntzera 125.000 euro bideratuko ditu udalak, hiru ataletan banatuta: **1.** Garapen bidean dauden herrietan proiektuak garatzeko 110.000€ (Deialdia GAOn argitaratzen den egunetik 30 eguneko epea eskaerak aurkezteko); **2.** Sentsibilizazio eta hezkuntza jarduerak sustatzeko 3.000€ (eskaerak abuztuaren 31ra arte); **3.** Larrialdi edo laguntza humanitarioko egitasmoetarako 12.000€ (eskaerak azaroaren 30era arte).

DIRU-SARRERA URRIAK DITUZTEN EMAKUMEENTZAT

Arrazoi ezberdinak tarteko (banaketa, dibortzioa, alarguntzea...) bizikidetzak-unitate iraunkorra hautsi eta diru-sarrera urriak izanik, familia kargak dituzten emakumeei laguntzak emateko deialdia egin du udaleko Ongizate departamentuak. Epea, azaroaren 30era arte.

SU-DETEKTAGAILUAK ETXE PARTIKULARRETAN

80 urte beteta eta etxean bakarrik bizi direnei zuzendutako deialdia da. Gazteagoek ere eska dezakete laguntza, mende-kotasun, bakardade edo arrisku egoeran bizi badira. Eskaerak, azaroaren 30era arte HAZ bulegoan.

LEHEN SEKTOREA BULTZATZEKO DIRULAGUNTZAK

Oñatiko lehen sektoreko aktibitateak sustatzeko 2021eko dirulaguntza deialdia egin du udaleko Ingurumen eta Landa Garapen departamentuak. Sei dirulaguntza lerro jasotzen dira deialdian: **1.** Nekazaritza ustialekuak modernizatzeko dirulaguntzak; **2.** Bertako produktuak merkaturatzeko laguntzak; **3.** Nekazaritza erabilerarako ura ordaintzeko laguntzak; **4.** Putzu septikoak garbitzeko eta instalatzeko laguntzak; **5.** Landa-auzoetako ermiten argindar kostea ordaintzeko laguntzak; **6.** Basobide pribatu nagusiak eraiki eta hobetzeko laguntzak.

2020ko aurrekontuaren likidazioa onartu du udalbatzak

2020ko aurrekontuaren likidazioa onartu zuen udalbatzak aho batez otsailaren 25eko osoko bilkuran. Aurrekontu orokorrari dagokionez, udalak likidatutako sarrerak 16.498.389 € izan dira eta onartutako gastuak 21.502.341€.

Aurrekontu arruntari erreparatzen badiogu, berriz, 1,1 milioiko aurrezki arrunta izan du udalak 2020an, diru-sarrera arruntak 15,8 milioikoak izan baitira, eta gastu arruntak eta amortizazioaren batura 14,7 milioira iritsi da.

Joan den urtean zehar udalak milioi bat eurotan jaitsi zuen zorra eta, horrenbestez, urte amaieran %5,28koa da zorpetze maila (10,3 milioiko zor bizia). Gogoratu, 2019ko urte amaieran 11 milioiko mailegua atera zuela udalak, kiroldegiko (8M), natur eskolako eta Araotzeko eskola ostatu bihurtzeko obrei aurre egiteko.

2020ko urtearen amaieran 7,9 milioiko diruzaintza gerakina zeukan udalak, eta horietatik 4,5 milioi 2021eko aurrekontura gehitzea onartu du udalbatzak, kreditu gehigarri modura. Gerakinetik erabilgarri gelditzen diren 3,4 milioiak oraingoz ez erabiltzea erabaki du udalak, abian diren hiru obra nagusiak erabat gauzatu arte.

Ugarkaldeko lanak amaitzeaz



Argazkian ikusten den moduan, amaitzeaz daude Ugarkaldeko jolas parkea estaltzeko lanak. Azken erremateak ematen ari dira, eta datorren asterako amaituko omen dituzte lanak.



2021
denboraldiko
bizikletak!



Oñabike
BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK
oñabike.com Otadui 25. Oñati
Tel.: 943 78 05 65

ASTEARTE INFORMATIBOAK

Osasuna eta Eskubideak Debagoiena eta **Informa-tu** taldeek hitzaldi zikloa antolatu dute, egungo pandemiak osasunean eta gure bizitzako arlo ezberdinetan izaten ari den inpaktua aztertu eta herritarrei erremintak eskaintzeko helburuarekin

HITZALDIAK

MARTXOAK 9, SANTA ANA ARETOAN, 19:00 BERRABIATZE HANDIA ETA NORMALTASUN BERRIA



Hizlaria: Alfonso Longo, Industria Ingenieritzan doktorea eta MBA. **Gaia:** Hemendik aurrera gure eguneroko bizitzaren diseinua zein izango den, eta aldeketako sozioekonomiko eta psikosozialen prozesuak aztertuko dira.

MARTXOAK 16, SANTA ANA ARETOAN, 19:00 GAITASUNEN ETA DOHAINEN EKONOMIA



Hizlaria: Nekane Jurado, Ekonomia eta Psikologia Klinikoko lizentziaduna. **Gaia:** Ezartzen ari den 'reseteo programatua'ren diagnostikoa egingo da, eta horren aurrean pertsona nahiz herri bezala garatu eta balioan jar ditzakegun gaitasunak jorratuko dira.

MARTXOAK 23, SANTA ANA ARETOAN, 19:00 PANDEMIAREN OINARRI MOLEKULARRAK



Hizlaria: Asier Galán, Biologia molekularrean doktorea. **Gaia:** Egungo pandemiaren kudeaketan erabili diren oinarri biomedikokoak ezagutuko ditugu.

MARTXOAK 30, SANTA ANA ARETOAN, 19:00 NOLA AUTOLAGUNDU ETA LAGUNDU COVID GARAIAN



Hizlaria: Raquel Amigo, Psikoneuroinmunologian aditua. **Gaia:** Pandemiak pertsonengan dituen ondorioak, adin taldeak, eta eguneroko berriari ahalik eta era egokienean aurre egiteko erremintak eta estrategiak jorratuko dira.

'COVID-19A, OSASUNAZ HARATAGO' izenburupean, hitzaldi zikloa antolatu dute Debagoieneko **Osasuna eta Eskubideak** eta **Informa-tu** taldeek, bi helburu nagusirekin: egungo pandemiak gure bizitzako arlo ezberdinetan izaten ari den inpaktua aztertzea, eta erremintak eskaintzea herritarrei, bizi dugun egoera honek maila fisikoa, emozionalean eta mentalean izaten ari den inpaktua ahalik eta egokien eraman ahal izateko.

Gure herrialdeko eta mundu osoko milaka pertsonen osasunean duen eraginaz haratago, egungo pandemia kolpe latza ematen ari da tokiko eta mundu mailako ekonomiari. Ekonomiaren moteltzeak, gugandik gertu dauden sektore asko, komertzio txiki eta herriko hostalaritza bezela, gure egungo bizimodua arriskuan jartzera eraman du.

Maila sozial, politiko eta ekonomikoaren inguruko informazioa, bigarren maila batean geratzen ari dela dirudi, eta beharrezkoa ikusten dugu gaur egongo egoera eta gure herriak jasango dituen ondorioak ulertu ahal izatea.

Era berean, informazio mailan, biztanlerian baztertuta daude eragin psikologikoak eta emozionalak, batez ere haurretan. Garrantzitsua iruditzen zaigu gai horiei guztiei heltzea eta informazio objetiboa izatea, argi pixka bat jar dezaketen profesional espezializatuen eskutik. Norantz goazen jakinaz, iritzi propioa izan dezagun.

Osasunari dagokionez, datuetan eta zenbakietan jartzen da arreta, baina ez da ia denborarik hartzen gure immunitate-sistema eta defentsak nola hobetu eta indartu azaltzeko, edozein gaixotasunen aurrean.

Ikusten dugu oso garrantzitsua dela, ahal den neurrian, ikuspegi positibo bat ematea eta etorkizunerako tresna praktikoak ikastea. Gauza horiei guztiei buruz hitz egiteko arlo ezberdinetako profesionalak etorriko dira datozen asteetan Oñatira. Aforoa mugatua denez, sarrerak aurrez hartzea gomendatzen da **osasunaetaeskubideak.debagoiena@protonmail.com** helbidean edo **658719089** telefonora deituta.



M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIAKON KONPONKETAK
PERSIAK, LENIOAK, LUR FLUTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



HAMAR GAI, HAMAIIKA BERBA

Megahirien garaian, pertsonengan oinarrituriko hirigintza

HITZALDIA. Oñatiko EH Bilduk antolatutako *Hamar Gai, Hamaika Berba* hitzaldi zikloaren baitan, 'Megahirien garaian, hirirako eskubidea eta pertsonengan oinarritutako hirigintza' izango da martxoan jorratuko duten gaia. Hilaren 24an (Santa Ana aretoan, 18:30etan) izango da hitzaldizolasaldia, eta lau lagun ariko dira hizlari: **Unai Fernandez de Betoño**, arkitektoa eta EH Bilduko legebiltzarkidea, **Iker Eizagirre**, Bidasoako herri mugimenduetako kidea eta *Hiritik At* kooperatibako partaidea, eta **Amaia Albeniz** eta **Koldo Telleria**, DUNAK taldeko arkitektoak. Azken hauek Oñatiko Hirigintza Plana berritzeko girotze fasean antolatu zen 'Oñati dana eta zana' ekimena dinamizatu zuten. Hitzaldirako sarrera dohainik da, baina aforo mugak direla eta, aurrez hartzea gomendatzen da www.oñati.eus atarian edo Txokolateixan.

'Arreta Gunea' ireki du EH Bilduk

EH Bilduren II. Kongresuaren harira sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, ponentziak banatzeko eta Bilkidetze kanpainaren gaineko berri emateko eta tramitearekin laguntzeko asmoz, Arreta Gunea irekiko du Oñatiko EH Bilduk Kale Barria xx-eko Bilgunean. Ostiralero (martxoaren 26ra arte) goizez (11:00-12:00) eta arratsaldez (18:00-19:00) egongo da zabalik.

Bestalde, gogoratu, Oñatiko EH Bilduk martxoaren 13an egingo duela Herri Batzarra elkarrekin.ehbildu.eus plataformaren bidez. Informazio gehiago, onati@ehbildu.eus helbidera idatzita.

Elkanori bira

HITZALDIA Argia aldizkariko kazetaria den Axier Lopezek 'Elkanori bira' izenburua duen hitzaldia emango du **martxoaren 30ean**, asteartea, **kultur etxeko zine aretoan, 18:00etan**. Magallanes eta Elkanoren mundu biraren inguruko ikuspegi kritikoa lantzen du Lopezek, erakunde publikoetatik jaso dugun mezutik aldenduz. Nahiz eta Elkano heroi gisa irudikatzen duten mezuak zabalduek izan, espedizio haren alde ilunak argitzen saiatuko da.



UEMAren udalekuetarako deialdia

DEIALDIA Udaleri Euskaldunen Mankomunitateak antolatuta, ekainaren 28tik uztailaren 4ra Zumaia eta Lekeitio artean egingo den udaleku ibiltarian izena emateko epea zabaldu du UEMAK, 14-18 urte arteko gazteentzat, martxoaren 31ra arte (www.uma.eus / 943816699 / hezkontza@uma.eus).

Bestalde, udaleku ibiltarian lan egiteko aisialdiko begiraleak eta sukaldariak ere behar dira. Interesa dutenek curriculum bidali hezkontza@uma.eus-era martxoaren 31 baino lehen.

Zuhaitz Ferixia eta Zuhaitz Eguna

INGURUMEN JARDUNALDIAK Natur Eskolak antolatuta martxoaren 6an Zuhaitz Ferixia egongo da herriko plazan, goizeko 9etatik aurrera. Hurrengo egunean, martxoak 7, Zuhaitz Eguna ospatuko da. Hitzordua, goizeko 10etan, herriko plazan. Bestalde, martxoaren 13an Natur Eskolak gidatutako ibilaldia egingo da Arantzazu errekan eta Gesaltzan (izen-ematea natureskola@yahoo.es), eta martxoaren 14an Zuhaitz Eguna egingo da Aloñako Lagunekin.



Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñati Udal



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udal

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Eskerrak, geuk

Prontxio, Juankar, Iñaki eta Migel (Nabarralde Fundazioko kideak)

Urtarrilerako 'geuk' jardunaldiak antolatu genituen Nabarralde Fundazioko lau kidek, beste askoren laguntzarekin. Hasteko, Kultura zinegotzi den Iñakiren babesa jaso genuen, eta kultura idazkaritzako Edurnek agenda egunak zehazten lagundu zigun, Kultur Etxeko baliabideak gure eskura ipinita.

Hizlariak lotu genituen ondoren, pandemiaren beldurra alde batera utzita, eta egitaraua osotu: Beñi, Asisko, Roldan, Rafa eta Gotzon. Gertu inprimategiko Nekane erraztu digu diptiko eta kartelen inprimaketa. Kontzejupetikeko Iñigok bi orrialde eskeini dizkigu. Oñati Irratiko Mirenek elkarriketa. Goienako Aitziberrek erakusketara bisitatxo bat, telebistatik.

Kultur Etxeko harrerako Imanolek prestatu digu zine aretoa hitzaldi bakoitzaren neurria. Mikel, Xabier eta Joxe Marik hitzaldiei sarrera aproposak egin dizkiete. Erakusketa zaintzen izan dugu Bittor, bi astez jarraian.

Antixena gaztetxekoei esker arratsalde baten bi lagun hitzaldiak entzun ahal izan genituen, bata bestearen jarraian. Beren ekitaldia aurreratu egin zuten, gurearekin talkarik ez egiteko.

Ia 300 lagun ibili gara aurtengoan, aurreko 'gutaz' edizioan baino gutxiago, pandemiaren beldurrez agian; gazteak, baina, gehiago. Eta Jon taldera batu zaigu. Xabi eta Balentin grabatzen aritu dira, lehen aldikoz. Badugu lanik berauek atondu eta etorri ezin izan zaretenoi hitzaldiok helarazten.

Zer kontatu dugun? Motzean esateko, Beñik habitat kontzeptutik abiatuta gure eratze politiko eta ondorengo suntsiketa erakutsi dizkigu. Asiskok mendez mendeko erresistentzian jarri du arreta, zapaltzaileen zitalkeriari nola erantzun izan diogun. Roldanek Zuzenbide Piriniarretik eratorritako gure Konstituzio propioaren modernotasunari egin dio gorazarre. Gotzon eta Rafak idazle eta kantariok zeri kantatu diogun erakutsi digute, eta hipotesi gisa, gutasunetik nitasunera etorri garel.

Datorrenari begira gaude jada. Arreta

berezia eman nahi diogu seme-alabei geure kontakizuna geuk kontatzeari. Eskolekin elkarlanean, agian.

Milesker, geuk.

Josebak, 75 urte

Xabier Igartua, Oñatiko EH Bilduko zinegotzia

Martxoan beteko dituzu 75 urte. Zu bezala hainbat oñatiar egongo dira, bistan da gehienak gazteagoak, hilabete berean urte bat gehiago izango dutenak. Oraindik orain, tamalez, azken hamarkadetan bezala ezingo duzu etxekoekin urteurrena pasa. Zenbat poztuko nintzatekeen mezu hau, idazten denetik argitara irten orduko, iraungita geratuko balitz.

Izan ere mendeku gose ase ezina, ez dago beste hitzik 75 urte beteko dituen bati etxekoekin egotea galaraztea zer den adierazteko. Are gehiago, beraien legeen arabera 70 urtetik gorakoek etxekoekin egoteko eskubidea dutela jasota dagoenean.

Doakie egoera hau ere gehien sufritzen duten etxeko eta lagunei, nire besarkadarik beroena.

Elkarbizitza eta bakerako bidean, Joseba, Angel eta gainontzeko presoak etxeratze garaia da!

Atzerrian lurra garratz

Amara Erostarbe Letamendi, EAJ alderdiaren zinegotzia Oñatiko udalean

Huts Teatroak eta Artedramak otsailaren 12an eskaini zuten Oñatiko Santa Ana antzokian, estreinakoz, *Atzerrian lurra garratz* antzezlan. Ikusteko emankizuna da, nire uste apalean. Euskara ere ederra eta egokia da, Miren Amuriza lagun. Gure inguruan, Eibarren taularatuko da martxoaren 4an, eta martxoaren 7an Arrasaten. Covid 19 gaixotasunaren eraginez, kultura-emanaldiez gozatzeko aukera ez da lehengo; izan ere, osasun-egoerak ez digu bake larregirik eman urtebete honetan, eta asko mugatu du gure egunerokoa. Oso berri ona da, beraz, kultura-jarduerak eta -emanaldiak antolatu eta gauzatu ahal izatea. Are poztigarriagoa Santa Ana antzokia bete



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



Azkarrena harrapatu nahian

 Horrela ibili ziren pasaden asteburuan Espainiako txapelketan parte hartu zuten atletak. Dani Rodriguez korrikalaria, estatuko atleta azkarrena da uneotan. 60 metroetako lasterketan argia bezain azkar iritsi zen helmugara eta hor zegoen, nola ez, momentu hauek inork baino hobeto erretratatzeko dituen Oñatiko argazkilaria.



FÉLIX SÁNCHEZ

izana, aforoa gutxituta badago ere.

Ander Lipus eta Laura Penagos aktoreek, eta Amancay Gaztañaga zuzendaria eratu dute lana, eta "Atzerrian lurra garratz, oña ibini egik baratz" atsotitzetik omen datorkio izena ("Casa propia es un tesoro que no es pagado con oro"). Istorioa errealista da. Gaiak sormena, etorkizuneko ametsa(k), emakumea, migrazioa, deserria, familia-harremak... dira. Tonua gordina da. Tarteka, goibela, ezkorra, etsipenezkoa eta iluna da; tarteka, alaia, baikorra, itxaropen-tsua eta koloretsua. Ardatza Kolonbiatik zaintza-lanak egitera Euskal Herrira etorri den Aurora Mora izeneko emakumearen bizipena eta unibertsoa da. Gau batean, amaren heriotzaren berria jaso du, eta doluan murgildu da. Lehen gau horretan, hainbat eta hainbat zirrara, gogoeta eta istorio ariltzen eta korapilatzen zaizkio bihotzean eta buruan. Izan ere, ez da samurra sortzailea izatea (artista); ez da samurra emakumea izatea. Are gutxiago, atzerrian. Ez da, oro har, samurra erbestean egokitzea eta errotzea. Noiz arte da emakume bat (eta gizakume

OHAR ETA DEIALDIAK

- **HITZALDIA: Desfibriladoreak eta lehen sorospenak**
Martxoaren 17an, Santa Ana aretoan, 18:30etan.
- **HITZALDIA: Koronabirusa eta konfinamenduaren ondorioak**
Martxoaren 15ean, Santa Ana aretoan, 18:15etan. Haur eta Lehen Hezkuntzako gurasoei zuzendua. Izen-ematea: ainhoea@onati.eus, martxoaren 10era arte.
- **ERRIGORA kanpaina, Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzeko**
Eskatu oliba olio birjina estra (5 litro) eta arroza, pasta eta kontserbak, ekoizleen jatorrizko prezioan. **Martxoaren 24ra** arte, **errigora.eus** edo **848871223**

bat) migrante? Noiz da (egiten dugu?) euskaldun? Neure mundu-ikuskeratik, antzezlanetan ikusitakoaz eta entzundakoaz gogoetan, galdera hauek ibili ditut buruan, baina ez daukat erantzunik.

Bestalde, antzezlanaren harira, gogoratu nahi dut euskaldun asko joan zela Ameriketara XIX. mendearen bukaera aldera eta XX. mende hasieran: Idahora, Montanara, Nevadara, Oregonera... Migrante izan ziren, eta esango nuke euskaldun amerikano ere bai. Gizakumeak izan ziren nagusiki, eta artzain-lanetara joan ziren. Hala ere, emakumeak ere abiatu ziren Ameriketara. Asun Garikano-

ren *Far Westeko Euskal Herria* liburuan dago kontatuta ("Emakumeak ere joan ziren Ameriketara" atala, 194; 211-214), adibidez, Angiozarren jaiotako Eulalia Ugalde Laspiurren bizipena eta bizimodua Mundu Berrian. Baita hara joateko arrazoia ere: "Gizonezkoen kasuan bezala, arrazoi ekonomikoak zirela-eta ausartzen ziren mundu ezezagun baterantz abiatzera. Baina beste bizimodu bat probatzeko gogoak ere bultzatzen zituen, emakumeentzat hain estua eta aukera gutxikoa zen garai hartako Euskal Herrian" (194). Lehen eta orain; orain eta lehen antzera samar, esango nuke. ■



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21



SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserriko ogia,
egurrezko labean egina



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

EGOERA HONETAN ERE GAUZA ONAK BADAUDELAKO!

Adin txikikoak eta pandemiaren gaia da krisi garai honetan noizean behin komunikabideen bitartez eztabaidara datozen kontuetako bat; horrelakoetan adituak ateratzen dira eta beraiei iritzia ematen dute. Batez ere Covid krisia (bere osotasun guztian) adin txikikoengan izaten ari den eragin negatiboa aipatzen da eta orokortzeko joera dago: haurrak eta nerabeak nola sentitzen diren orokortuz.

Azken urteetan adin txikikoei mugak jartzea ona zela esaten ari ziren eta kolpean izugarritzko muga pila jarri dizkigute eta jarri dizkiegu. Muga hauek zer eragin izaten ari dira? zer eragin izango dituzte?

Erantzunaren jabe ez da inor bere osotasunean, eta denbora pasa ahala olatu honen tamaina zein den argiago ikusiko dugu. Baina esan bezala, eragin txarraren azpimarra egiten da soilik.

Entzun ditugun ondorioetako batzuk dira honako hauek: Auto eraikuntzan mugak jarri zaizkiela haur eta nerabeei, epai-tuak eta kriminalizatuak izaten ari direla nerabeak, haur eta nerabe asko daudela sufrimendu sintomekin (fobia, izua, tristura, depresioa)...

Halere, edozein gertaerak alderdi osasuntsuak eta onuragarriak izan dezaketela ere badakigu, nahiz eta zaila den, kasu honetan, hori orain ikustea.

Zalantzarik gabe urte berezia izaten ari da guztiontzat eta gure belaunaldiak ezagutu ez dituzten testuinguruak eta egoera berriak sortu dira. Honenbestez inertzia zaharrak eta jokabide eta pentsamolde automatizatuak derrigorrean irauli behar izan ditugu, eta haurrak, nerabeak eta helduok dugunarekin erantzun berriak sortu behar izan ditugu, eta hau bere horretan eta garapen ariketa gisa, ona da.

Adibidez, bigarren etxebizitzara ihes egiten zuten haur, nerabe eta familia horiek etxean bertan edo herrian bertan geratu behar izan dute. Eta agian, urrutira joan gabe eta kotxea hartu beharrik izan gabe gustura egon direla konturatu dira. Astero kanpora begirako planak ukatu zaizkigu. Beraz, aisialdirako derrigorrezko Oñati KM 0 tik gure herriko txokoak berrezagutzeko ariketan heldu, haur eta nerabeak batu gara herriko txoko-altxorretan gure onena emateko. Bere horretan haur eta gurasoek ariketa berriak egin dituzte. Irudimena eta egokitu beharra tartean erantzun berriak sortu: mendira eta natur guneetara gehiagotan joan gara, diru gutxiago gastatuta ere ondo egoten jakin dugu...

Hizketaldi interesgarriak ere sortu dira haur, nerabe eta helduen artean. Osasunaz aritu gara eta elkar zaintzearen beharraz asko hitz egiten ari gara. Banakoaren erantzunaren eta erantzukizunaren garrantziaz irakaspena jaso dute txikiek. Beldurtu egin gara baita ingurukoekiko ardura sentitu. Ziur maitasuna azaldu diegula hauei ondorioz.

Zientzia eta ikerkuntzaren garrantzia ere oso agerian geratu da. Biologo, mediku eta zaintzaile askoko belaunaldiak etorriko dira txikitako esperientzia hauen ondorioz. Sentsibiltate berezi bat garatzen ari den gazte pila izan genezake ziur. Horrez gain pentsamendu kritikoa, eztabaida eta hausnartzeko balio izan ari zaigula pentsa nahiko genuke banakoaren eta planetaren zaintzan.

Hemen Covid-aren bueltako albiste uholde ezkor honetan gertatzen ari diren gauza on batzuk. Beti txarrera begiratzen ibili gabe eman diezaiogun buelta!

GAZTE ELKARTE ETA SORMEN DIRULAGUNTZAK: Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria sailak, aurten ere, gazte elkarteak eta sormena bultzatzea helburu duten diru-laguntzak jarriko ditu martxan martxo bukaeran. Diru-laguntzak jarraian zerrendatzen diren ataletan oinarrituko dira: Urteko programaketa – Elkartearen sustapena, Kultur sormena eta hedapena (diskak, audio-bisualak, ...), ez-ohiko jarduerak. Martxoaren erdialdetik aurrera egongo da eskatzea. Informazio gehiago Gaztelekuan, Oñatiko Udalean edo www.onati.eus.

GAZTEEN EMANTZIPAZIOAKO DIRULAGUNTZAK: Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak alokairuko etxebizitza eskuratzea sustatzea helburu duten diru-laguntzak martxan jarriko dira aurten ere. Diru-laguntza lerro honen oinarriak eta deialdia otsaileko Osoko Bilkuran onartu ziren, beraz Gipuzkoako Buletin Ofizialean argitaratu bezain laster eskatu ahal da, hau da martxoaren bigarren edo hirugarren astean gutxi gora behera. Diru-laguntza hauen aurtengo deialdian aldaketa txiki batzuk txertatu dira helburu berdinerako Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen "Gaztelagun" programarekin batera gazteen emantzipazio beharrei erantzuteko asmoz. Horrela, Oñatiko Udalean aurkeztu ahal da emantzipazio diru-laguntza eskaera guztiak, eta eskatzailearen baldintzen arabera dagokion administrazioa bideratuko da eskaera (Udala edo Eusko Jaurlaritza), gazteentzako eskaera egiteko bidea erraztuz. Informazio gehiago Gaztelekuan, Oñatiko Udalean edo www.onati.eus.

UDALEKU IREKIAK – ARTE UDALEKUAK: Euskaraz eta gozamenetik disfrutatzeko aukera izango dugu aurten ere Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria sailak antolatzen dituen udaleku ezberdinetan. Beti bezala ekintza ezberdinak egingo ditugu haurren nahi eta gogoetara egokituz, eta 4 urtetik 12 urteko haurrak parte hartu ahal izango dute. Laster informazio gehiago helaraziko zaizue, hile honetan bertan. Udalekuetako begiraleen kontratazioaren inguruko informazioa ere martxoan jakinaraziko da.

'ONDO BEREIZTUA, ASKO AURREZTUA!'

Ontzi arinekin batera botatzen diren hondakin inpropioak gutxitzeko kanpaina egiten ari da Mankomunitatea

Ondo bereiztua, asko aurreztua! Ielopez, edukiontzi horian botatzen diren hondakin inpropioen kopurua gutxitzeko sentsibilizazio kanpaina abian jarri du Debagoieneko Mankomunitateak. Ontzi arinen bilketan hondakin inpropio gehiegi (pixoihalak, organikoa, beirazko poteak, jostailuak, plastikozko poltsak...) aurkitu ohi da, eta horrek birziklapen prozesua eten eta zailtzeaz gain, ingurumen kaltea eta diru-galera handia (azken bi urteetan 150.000€) eragiten ditu. Horregatik, arazo honen inguruan herritarrek ohartaraztea eta ohitura egokiak gizarteratzea da abian jarri den kanpainaren helburua.

OÑATIN, MARTXOAREN 13AN

Helburu horrekin, adin ezberdinetako herritarrei zuzendutako hainbat ekintza antolatuko dira eskualdeko herri guztietan. Alde batetik, informazio puntua jarriko da herriko plazan, kanpainaren berri eman eta ohitura egokiak dekalogo batzuz.

Haur eta gaztetxoei zuzendutako ekintza ezberdinak ere izango dira (murala, ginkana...), jolastan ari diren bitartean ontzi arinen eta birziklapenaren inguruan ikasteko. COVID-19ak eskatzen dituen segurtasun neurriak bermatuko dira, eta aforoaren jarraipena egin ahal izateko, izena ematea gomendatzen da (www.labur.eus/debagoienataillerra.eus). Partaideen artean kotoi organikoz egindako poltsak eta erosketa zakuak zozkatuko dira.



IDEIAK, ONLINE

Aurrez aurreko ekintzez gain, online parte hartzeko aukera ere badago. Hala, herritarrek ontzi arinen birziklapena hobetzeko ideiak mankomunitatera bidaltzeko aukera izango dute bertako webgunean sartuz (www.labur.eus/debagoienazozketa). Ideiak bidaltzen dituzten herritarrek oihalezko poltsa eta zakuen zozketan parte hartzeko aukera izango dute.

Izan jasangarri

#Izanjasangarri

Eguneroko bizitzan, ohitura aldaketa txikiek, gure bizitzetan aldaketa nabarmenik suposatzen ez badute ere, ingurumenean epe ertain eta luzean, aldaketa positiboak dakartzate

✉
kontsumojasangarriaonati@tutanota.com

Kontsumo jasangarri taldea

Hileko proposamenak Martxoa



Kontsumo jasangarria gauzatzeko ekintza bat:

Zenbat ur kontsumitzen duzue egunero zure etxean? Aztarna hidrikoa kalkulatzeko aukera duzu hemen: <https://www.watercalculator.org/wfc2/esp/>



Kultura jasangarriaren txokoa:

URA (Jean Baptiste de Panafieu, Edit. Ttartalo): haurrentzako ipuin honekin etxeko txikienek ura eta bere berezitasunak ezagutuko dituzte.



Kontsumo jasangarriari buruzko datua:

Bost minutuko dutxa batetan, 100 litro ur kontsumitzen dira, pertsona batek 50 egunetan edaten duen kopuru berdina. (www.fundacionaquae.com)



Ekimen jasangarri bat:

Jatetxe eta tabernetan ura eskatzerakoan botilakoa eskatu beharrean pitxarran ateratzeko eskatu dezakezu.

Udaletxe eta mankomunitateak horren aldeko kanpainaren bat egin izan du, orain gure txanda da!

<https://www.diariovasco.com/alto-deba/201505/01/iniciativa-etxeko-quiere-potenciar-20150501001107-v.html>

iritzia

Gorputz hezkuntza, pandemia garaian guztien ahotan

MIRIAN URZELAI / Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatua eta irakaslea

Guraso den batek, seme-alaben aurrean ikasturte hau hasi baino lehen esana... "Aurten birus honekin ez duzue izango lanik..., gainera Gorputz Hezkuntzan... puff..." Pasa da denbora... eta pandemiak ekarri dizkigu debeku ugari, baina irakasleok egon gara eta gaude prest ikasle eta familiekin aurre egiteko elkarlanean erronka berri honi, nahiz egun gutxi batzuk egon eskolara joan barik, martxan hasi ginenetik, bermatu dugu gizarteak hain beharrezkoa duen kontziliazio hori.

Agintari eta espezialistek justifikatutako arrazonamenduz hartu dute erabaki zentzudun, egoki eta zuzena. Maskaraz, eta beste erritmo eta intentsitate batez, baina mugimenduan Gorputz Hezkuntzako saioetan parte hartzearena, garapen integral baterako bidean, ikasleen oinarritzko eskubideak bermatzearena alegia.

Azken ikerketek (horien artean "Mayo Clinic Proceedings"-en publikatutakoek) egoera fisiko onean edo eta oso onean dauden pertsonen SARS-CoV-2-a hartu ez gero, beraien ospitaleratze aukerak erdira murrizten direla ziurtatzen digute. Argi utziz beraz jarduera fisiko erregularra egiteak, dieta orekatu eta atsedean egokiekin noski, gure defentsa-sistema indartzen duela.

Askoren ustearen aurka, aurten gabiltz guztiz lanpetuta erronka honekin. Ardura handiagoz dihardugu irakasleok bete behar ditugun protokolo eta segurtasun neurri guztiekin eta ikasleekin izan beharreko enpatia eta sentsibilizazioarekin. Guzti hau Euskadiko administrazioak irakaskuntzan Europarekin alderatuz jasaten duen enplegu behin-behinekotasun altuena duela kontuan izanik. Euskal gizarte aurreratua, bai, nago sinistu ezinik.

Ikasleek inoiz baino behar handiagoa dute goiz erdia baino gehiago eserita pasatzen duten aulki horretatik jaiki eta euren gorputzarekin bat adimena mugimenduan jartzeko, euren nortasuna gizakiontzat hain garrantzitsuak diren sozializazio bizipen ezberdinez aberasteko. Behar fisiologikoaz ari naiz bai (jarduera fisiko/psikikoak dakartzan onurak, hainbat gaixotasunen prebentzioa, gehiegizko pisua ekiditzea, hezur-giharren indartzea, ... eta abar luze bat direlako), baina baita behar psikologiko edo emozionalaz ere bai (autoestima igotzen lagun dezakeelako, antsietate egoerak gutxiagotan jasaten, ...), behar eta onura sozialak ahaztu barik (euren autonomian eta integrazio sozialean lagundu dezake, ...).

Ahaztu egiten dugu maiz, gurasook gauza ezberdinekiko dugun pertzeptzioak, gure

seme-alabengan izango duten pertzeptzioan eragina izango dutenik..., eta hala da, bai!! Beraz, kontuz!! Eman garrantzia kalitatezko bizitza bete eta osasuntsu bat izateko eskolak eskeintzen dizkigun bitartekoei, eta irakasgai bat bera ere ez gutxietsi... handik eta hemendik, motibazioz ikasten baitugu guztietatik. Haur eta nerabeen sedentarisismoak ekarriko digun etorkizuneko osasun sistema kolapsatu bat eragozteko denboraz gaude oraindik.

Kontestu honetan, albiste on bat eta txarra beste bat. Ona, bizitzen ari garen osasun krisiaren ondoren hilabete honetan bertan kongresuan jarduera fisikoa eta kirola oinarritzko jarduera gisa onartzearen proposamena aurrera atera dela, zerbait ikasi dugu beraz; eta txarra, aurtengo ikasturterako beharra ikusita, EH-n 84 Guraso Elkarteak eskatu zituztela diru-laguntzak ikasleen artean jarduera fisiko ezberdinak bultzatzeko baina 22-ri soilik eman dizkietela, otsaileko albiste tristea, aurrekontuko diru-hornidura bukatu dela adieraziz. Hau ez da bolondres kontu bat, instituzioek bermatu behar duten eskubide bat baizik. Egin zaio osasun departamentuari aurrekontua handitzeko dagokion eskaera eta erantzunak arduratsua izan behar du beraz.

Ikasturte hau benetan gogorra eta deserosoa egiten ari zaie ikasleei (are gehiago geldi egotea izugarri kostatzen zaiei, edo eta zailtasun anitz bereziak dituztenei...). Eta biziki konbentzita esan dezaket, aurten Gorputz Hezkuntzako saioetan bizi eta ikasitakoak ekarriko dizkien onurak, inoiz baino beharrezkoagoak dituztela haur eta nerabeek. Gure saioetan euren irrifar ezkutuek hala diote. Egoera "arraro" honek ikasleak eraldatu ditu, eta "terreno" berri honetara kamaleoiak gisa egokitu. Txalo bero bat ikasturte hau hain ongi eta ez hain ongi darmaten ikasle-familia eta irakasle guzti horiei aurten elkarrekin egiten ari garen ahalegin bikain eta ikaragarriagatik.

Izan dezagun garbi; jarduera fisikoa eta psikikoa praktikatzek aske, bizi sentiarazten gaitu, eta are eta askeago baldin bada harremanetan naturarekin... Beraz entzuten duzuen entzunda, eman garrantzia eman behar zaionari, txertatu zuen bizitzan horren gustoko duzuen jarduera hori, oharkabean sedentarisismoa garamatzaten ordenagailu, mugikor, "pantalla" eta tabletak horrenbeste begiratzeari utzi, ETA INSTITUZIOEK EUREN ETXEKOLANAK ONGI EGIN BITARTEAN, HARTU ZUENTZAT OSASUNTSUA ETA KALITATEZKOA IZANGO DEN MUGIMENDURAKO TARTE HORII!!

KIROL EMAITZAK

Sagasta eta Aldekoka Espainiako txapelketan

IGERIKETA Enaitz Sagasta Aloña Mendiko igerilaria martxoaren 7an Malagan jokatu den Espainiako txapelketarako sailkatu da 100 Bizkarrean (1:00:25) infantil mailan. Bestalde, junior mailan, Kepa Aldekoka autonomien arteko estatuko txapelketan aritu da Oviedon, eta marka pertsonala (2:13:93) egin du 200 Bizkarrean.

Mikel Ruiz podiumean kros txapelketan

ATLETISMOA Mikel Ruiz Aloña Mendiko korrikalaria 3. sailkatu da Getxon jokatu den Euskadiko Kros Txapelketan, absolutu mailan, 34:52ko denborarekin 10 kilometroko ibilbidean. Erik Martin 8. sailkatu da Sub-23 mailan (34:23).

Ainara Uribarri mendi eskiko Espainiako Kopako podiumean

MENDIKO ESKIA Otsaileko azken asteburuan Formigalen jokatu zen mendiko eskiko Espainiako Kopan podiumera igo zen Ainara Uribarri oñatiarra kronoigoerako modalitatean. Hirugarren eskia-tzaile onena izan zen gure ordezkaria. Axier Alonsok ere lan bikaina egin zuen 8. sailkatuta. Hurrengo egunean, banakako proban, Alonso 7. sailkatu zen (lehen euskalduna helmugan) eta Uribarri bosgarren. Jubenil mailako proban Sara Arregi 5. sailkatu da, eta bere anaia Haritz 14., kadete mailan.

SNOWRUNNING Eskiatzen ez ezik, korrika ere oso ondo moldatzen da Ainara Uribarri. Oraingoan elur gainean aritu da, bere aurreneko esperientzia izan da, eta bigarren sailkatu da, Espainiako Snowrunning Kopako Larra-Belaguako proban.

ESKERRIK ASKO!

Gary Bañosen ezusteko heriotzak saminduta utzi du herria. Oñatin ez ezik, gure mugetatik kanpo ere, oso pertsona maitatua zen. Berezi, txirrindularitza munduan. Bere lagun eta lankideek, azken agurra eman nahi izan diote. Otsailaren 22an, omenaldi saioa eskaini zioten Oñati Irratian. Bidaia on!



JON ODRIZOLA

"Oso gogorra izan da. Oso mutil ona zen. Beti laguntzeko prest zegoen horietakoa"



AITOR UMEREZ

"Jota gaude. Zauden lekuan zaudela, segi Aloñako harrobia beti bezain beste zaintzen"



IÑAKI URROZ

"Bihotz erdi apurtu zait. Murtziako zure familiak ez zaitu inoiz ahaztuko Gary!"



EUGENIO GOIKOETXEA

"Lankide izan nuen Caja Ruralen. Mutil alaia, lanean isladatzen zuen. Bidaia on!"



GARI BRAVO

"Momentu asko partekatu genituen. Oso alaia, langilea eta umila zen. Eskerrik asko Gary!"



GORKA IZAGIRRE

"Nire lehen masajista izan zen. Burumakur geundenean beti egoten zen ondoan"



MARKEL IRIZAR

"Txikitatik ezagutzen nuen. Oso tipo ona zen. Sekulako hutsunea utziko du"



GARAZI EROSTARBE

"Oso triste nago. Asko lagundu dit nire kirol ibilbidean. Ez zaitut inoiz ahaztuko"



LOURDES OYARBIDE

"Nola esan agur zu bezalako pertsona on bati. Izugarri botako zaitugu faltan"



LIDE LARRAÑAGA

"Taldeko kapitaina zen. Bere aldamenean gustora sentitzen zinen. Ez zaitugu ahaztuko"



KUADRILAKOAK

"Oraitzapen asko utzi dizkigu. Balio handiko pertsona. Bere esentzia mantenduko dugu"



ARRITXU IRIBAR

"Bere lana izugarri ondo egiten zuen. Baina gurea ere, asko errespetatzen zekien"



Entzun irratsaio berezia hemen



COINBROKER
OÑATI
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

📍 ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

☎ 943 089 006 📞 688 774 531 - WHATSAPP

✉ OINATI@COINBROKER.EUS





Soka ez da eten

Dantzariok plaza dugu gustuko. Maite dugu. Bertan egiten dugu bat musikari, ikusle ezagun, kurioso ezezagun eta abarrekin. Eta plaza maite dugun beste gorroto dugu batzuetan; kontrako eztarritik joaten zaizunean jauzi bat, itzuli bat, urrats bat... Lurrera eroriak ere bagara hainbat... Eta denbora pasa eta kontuak kontatzean egiten dugu barre; izan ere, berriz oroitzen dugu zer zoriontsuak garen plazan, kale egin arren.

Kale egin genuen iaz. Ez guk horrela gura izan genuelako, jakina, baina kale egin genuen. Urteurrena ospatzeko lan taldeak martxan jarri, herritarren babesak jaso, komertzioen bultzada sentitu, udalaren eskuhartzea nabari... eta guk urrats, jauzi eta itzulian kale.

Baina lehenago ere makina bat aldiz kale egin ondoren zutitu izan gara; Oñatiko arku dantzan korapilosa askatu ezinda ger ostean moduan. Gure herriko plazan, korpus jaietako larunbat goizean, inoiz entzun diren txalo zarta zaratsutsuenak orduan entzunak gara batzuk... Txalo horiek entzun gura ditugu berriz. Eta horrexegatik gatoz bueltan: arkuak askatu eta korapilosa berregin gura dugu.

Korapilora sartu, jakina, oraingo honetan askatu eta biribilketan kontzejupera itzultzeko. Ziur asko ez ditugu iaz aurreikusitako beste ekintza antolatu eta proposatuko aurtengoan, egoerak baldintzatuta gaude-eta, baina egin ahal ditugun guztiak aurretik eta ondoren osasuntsu izateko moduan egingo ditugu.

Horretarako osasun baldintzak eta neurriak zuzen beteko ditugu; izan ere, kultur ekintzak seguruak dira. Jakina, garaian garaiko zehaztapenak izango ditugu, eta, alde horretatik, edozein aldaketa edo egokitzapenen aurreran pazientzia izatea eskatu gura dizuegu, zilegi bazaigu, behintzat.


Zilegi zaiguna erabat da eskerrak ematea babesak eskaini zeniguten eta, berriz ere, berdin aitortu diguzuen komertzio guztiei. Guretzat erabateko garrantzia du zuen babesak; zuen laguntza barik oso zail izango litzaiguke ezer antolatzeko indarrak batzerik ere. Oñatiko Udalari, baita ere, eskerrak ematea tokatzen zaigu, gure proiektuan sinesten jarraitzen du-eta, zailtasunak zailtasun.

Amaitu gura dugu, zelan ez, gure soka gordeta izan behar izan dugun arren, eten ez dela egin esaten. Goruetan jarraituko dugu gure ahaide, lagun eta arbasoek egin zuten moduan, gure ondorengoek ere halaxe egin dezaten.

Gora Oñatz!

JANTZI DANTZA GURUTZEGRAMA


> Bete gurutzegrama eta ekarri orri hau Oñatiko Kultur Etxeko Jantzi Dantza erakusketara, martxoaren 8tik 26ra. Parte hartu zozketan eta irabazi Oñatz Dantza taldeko 50. urteurrenako oroigarri bat.



1. Zein koloretako txapela erabiltzen du Oñatiko Korpus dantzeta kapitainak?
2. 2018. urteko Korpus Jaiak berezitasun bat izan zuten: jaien historian lehen aldiz Oñatz dantza taldeko _____ dantza egin zuten.
3. Zenbat dantzarik dantzatzen dute Oñatiko Korpus dantzak?
4. Zenbat koloreko zintak dituzte bizkarrean Luzaideko dantzetan mutilek darabilten arrokek?
5. Zer daramate mutilek eskuetan Luzaideko dantzetan Muxikoak dantzatzean?
6. Zein ofiziotako arropa janzten da Batelerak dantzatzean?

7. Zein edari egoten da edalontzian Suletinoetako Godalet dantzan?
8. Zein koloretako mantoia dute soinean lehen eta azken dantzariek Lekeitiko aurrekuan?
9. Zein oinetako janzten dituzte dantzariek Gipuzkoako Zinta dantza dantzatzeko?
10. Oñatiko Korpus dantzetan, honako musika instrumentuak erabiltzen dira: txistua, silbotea, atabala eta _____
11. Zer hartzen dute eskutan dantzariek gariarekin batera Igitai dantzan?

- **Laguntza:** Oñatiko merkataritzako erakusleihoetan aurkituko dituzu erantzunak. Galderen zenbakiak erakuslehoi zenbakia dira.
- **Izen Abizenak:** _____
- **Telefono zenbakia:** _____



atxi murka

#1. Etxeko lapurra

A tximurka esaten diogu bestearen azala atzekin biurrituz edota azkazalak erabilita, haren azala urratuz aurrean duzunarengan erantzun bat sortzea helburu duen dei edo jolasari.

Sortu berri den leiho honen funtzioa, zuri, irakurle, atximurka egitea izango da, metaforikoki baldin bada ere. Idaztea, irakurtzea, kultura, zerbait baldin bada, pentsamendua eta kritika baita, dibertimenduz gain.

Zauririk sortuko ez dugulakoan.

Bada ispilu bat gure etxeko sarreran

Gu baino zaharragoa da eta egunero zahartzen ikusten gaitu

Ispilu honetan etxeko ate guztiak kabitzen dira

Aspaldi bertan jasotako ate-irudietako giltza lapurtu zigun

Ispilu honek nik ezagutu gabeko gurasoak ezagutu ditu

Nik ezagutu gabeko etxea ezagutu du

Nik bizi gabeko argazkiak lortu ditu

Eta ikusitakoak ikusezin bihurtu ditu

Gurasoen negarrak

Pozak

Anai arreben musu isilak

Baina oraindik ez du asmatu ni ondo irakurtzen

Bada ispilu bat gure etxeko sarreran, guk jakin gabe gure bizitzotako

lapurrik eta aberatsena dena.



Markak (dokumentala) eta **Habia** iparraldeko hirukotea

SANTA ANA ARETOAN, 18:00

Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrena oroitzeko Hannot Mintegiak zuzendutako dokumentala da **Markak**, eta filmarekin batera, **Aitor Etxebarria** sortutako soinu-banda zuzenean entzuteko aukera egongo da.

Bestalde, iparraldeko **Habian** soka eta ahots hirukotea (Amaia Hiriart, txeloa, Elena Haira, altoa, eta Maia Iribarne, biolina) 'Animalia naiz eta' izeneko bere lehen disko atera berria besapean duela iritsiko da Oñatira.

Sarrerak www.oñati.eus eta Txokolateixan salgai datozen egunetan

BERATU **MUSIKA JAIALDIA** *Musika industriari laguntzea inoiz baino garrantzitsuago delako*

Beratu Jaialdiaren 4. edizioa egingo da Oñatin martxoaren 19tik 21era. Euskal Herrian sortzen diren musika ezberdinen topaleku bilakatzeko asmoz sortu zen Beratu 2018an, eta, dagoeneko, erreferentzialtasuna hartzen ari dela esan daiteke.

Iaz, martxotik urrira atzeratu behar izan zen jaialdia, Covid-19aren ondorioz, baina jendearen erantzuna ikusita, hura amaitu orduko 2021eko ekitaldia antolatzeari ekin zioten antolatzaileek, eta bere ohiko datetan, martxoaren erdialdean, dator edizio berri hau.

Testuinguruak ez du askorik laguntzen oraindik ere, tamalez, baina antolatzaileen ustez inoiz baino garrantzitsuagoa da gisa honetako ekimenak antolatzen jarraitzea, musika-industria jasaten ari den kolpea arintzen laguntzeko, alde batetik, eta gizarteari, herritarrei, egiten dien ekarpenagatik, bestetik.

Beratu-ren ezaugarrietako bat herrian deszentralizatu eta

'ez-ohiko espazioak okupatzen' joatea izaten da, baina, oraingoz, esperimentazio bide hori albo batera utzi behar izan dute, pandemiak hala behartuta. Eta arrazoi beragatik interakziorako bidea ematen duten ekitaldirik (tailerrak, hitzaldiak...) ez dute antolatu. Baina, gainerakoan, jaialdiak bere esentziari eutsiko dio, Euskal Herriko musikaren plaza bihurtuz. Ohi bezala, iparraldeko ordezkartza bat izango da, eta baita Euskal Herriko kanpoko gonbidatua ere, aurten Kataluniatik. Bestalde, emakume eta gizonezkoak modu paretsuan ikusiko ditugu oholztan.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiote udalari eta herriko hainbat eragileri (Gaztetxea, Ilunpetan...) Beraturi eskaintzen dioten laguntzagatik. Sarrerak udalaren webgunean (www.oñati.eus) eta Txokolateixan jarriko dituzte salgai datozen egunetan.



Ana Andreu kataluniarra eta Juan Valls oñatiarra

SANTA ANA ARETOAN, 18:00

Sant Quirze del Vallés-eko (Katalunia) dator **Ana Andreu**, *Cálido Home* taldeko kide ohia, bi urteko isilunearen ondoren hasi duen ibilbide berriko lehen diskoa (Els mals costums) aurkeztera, ganberako pop gisa bataiatu duen proposamen berria. Marina Arrufat (bateria jolea) lagun duen disko berrian melodien eta isiluneen indarra bilatzen du Andreuk, nortasun eta sakontasun handiko testuetatik abiatuta.

Kontzertuaren bigarren zatian, **Juan Valls** oñatiarraren folk-country doinuez gozatzeko aukera izango dugu. *Life holds red lights on behind* (2015), *Blue distance and other bluish songs* (2017) eta *La Chunky Sessions* (2017) lanen ostean, zuzeneko grabazioak eta kolaborazio bereziak biltzen dituen sei abestiren bilduma berria argitaratu zuen 2020ko urte hasieran Oñatiko emanaldian Iñigo Ugarte, Mikel Marco eta Ander Etxaniz izango ditu alboan.



Aitor Etxebarriaren soinu unibertso propioa

LAZARRAGA LORATEGIAN, 13:00

Hamar urte luzez 'El_Txef_A' izenez musika elektronikoa sortzen jardun ostean, ibilbide berri bati ekin zion **Aitor Etxebarria** (Gernika, 1985), eta *Nihilism Part 1* diskoa plazaratu zuen 2019ko urte amaieran, soinu unibertso propioa eraikiz.

Bost urte luzez landutako diskoa da. Sonoritate, estetika eta zimurtasun edo misterio kutsu berezia duen musika eskaintzen digu Etxebarria, *Markak* dokumentalerako soinu-bandan hasitako bideari segida emanez. "Badu zerbait klasikotasunetik, baina baita ezerosotasunetik ere, alantzen dabil sonoritate hori. Diskoa hasten da piano soinu batekin, neoklasiko samarra, avant-garde ukitu batekin, zaratzatsua eta eszentrikoa, eta gero bat-batean rock kanta estandarrago bat, eta gero melodia lasai bat... Baina niretzat badago halako hari bat" azaltzen du musikariak berak.



Verde Prato ahotsarekin esperimentatuz

GAZTETXEAN, 18:00

Verde Prato Ana Arsuagaren proiektua da, musika eta pintura bezalako diziplinetan zehar dabilen artista. Bere abestiek, bere koadroek bezala, istorioak kontatzen dituzte eta euskal folkloreetik edaten dute. Euskaraz, gaztelaniaz eta errusieraz kantatzen du.

Verde Pratok ahotsarekin esperimentatzen du batez ere, eta looper bat eta teklatu bat besterik ez ditu lagun. Melodiaren eta hitzen artean, kantuaren bidez, ezartzen den lotura eta transmisio-ahalmena interesatzen zaizkio, baita zuzeneko batean sor daitezkeen intentsitate desberdineko erlazioak aztertzea ere.

Bai letratan, bai konposatzeko elementu gutxi aukeratzean, Verde Pratok xumetasunaren aldeko apustua egin du. Sinpletasun horrek indarra hartzen du zuzenetan, eta gatibu geratzen da erremediorik gabe.

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalaheen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



MUSIKA

MARTXOAK 13 / 17:00 eta 19:00

BULEGO



Azkoitiko pop taldeak disko berria aurkeztuko du. Bi emanaldi eskainiko ditu. Sarrera: 8€. [Gaztelekuan](#).

MARTXOAK 19 / 18:00

'MARKAK' eta HABIA

Beratu jaialdiaren baitan, 'Markak' dokumentalaren soinu banda zuzenean, eta iparraldeko soka eta ahots hirukotea. [Santa Ana aretoan](#).

MARTXOAK 20 / 18:00

ANNA ANDREU eta VALS & BAND

Beratu jaialdiaren baitan, Anna Andreu kataluniarra eta Juan Valls oñatiarraren kontzertua. [Santa Ana aretoan](#)

MARTXOAK 21 / 13:00

AITOR ETXEBARRIA

Musikari gernikarrak bere azken lana aurkeztuko du, Beratu jaialdiaren baitan. [Lazarraga lorategian](#)

MARTXOAK 21 / 18:00

VERDE PRATO

Verde Pratoren (Ana Arsuaga) musikaz gozatzeko aukera, Beratu jaialdiaren baitan. [Gaztetxean](#)

ANTZERKIA

MARTXOAK 28 / 19:00

PORNO Vs AFRODITA




Benetan Be taldearen eskutik. Sarrera: (10€). [Santa Ana aretoan](#).

DOKUMENTALA

MARTXOAK 10 / 19:00

AUDRE LORDE: THE BERLIN YEARS 1984-1992.

Dagmar Schultz-en filmaren bertsio originala gaztelarazko azpitituluekin - BOSE. [Kultur etxeko zine aretoan](#).



AZOKA

MARTXOAK 7 / 10:00-14:30

EMAKUME ARTISAUEN AZOKA

Sare Feministak antolatuta. [Berdura plazan](#).

HITZALDI-SOLASALDIAK

MARTXOAK 17 / 18:00

EDERTASUN KANONAK, LODIFOBIAREN IKUSPUNTUTIK

Hizlaria: Irati García. Martxoaren 8aren inguruan antolatutako solasaldia. Euskaraz. [Kultur etxeko zine aretoan](#).

ERAKUSKETA

MARTXOAK 8-28 / 18:00-20:00

JANTZI DANTZA

Oñatz dantza taldeak antolatutako erakusketa. [Kultur etxean](#).

TERTULIXAN SAIOAK

UDAL LIBURUTEGIKO IRAKURLE TALDEAK

Gaztelarazko irakurle taldeak martxoaren 9an (zine aretoan, 18:30) egingo du hile honetako saioa. Marcos Giralt Torrenteren *Tiempo de vida* nobela aztertuko dute, Ane Zapaterok dinamizatuta.

Psikologia gaietako irakurle taldea hilaren 16an elkartuko da liburutegian (18:30), eta David Ebershoff-en *La chica danesa* liburua aztertuko dute, Silvina Fondrak gidatuta.

Euskarazko Tertulixan taldean Pello Lizarralderen *Argiantza* nobela aztertuko dute martxoaren 23an (zine aretoan, 18:30), Yurre Ugartek dinamizatuta.

Idazketa lantegiko bi taldeek martxoaren 15ean (17:30 eta 18:15) egingo dute hile honetako saioa, Joxe Mari Iturralderekin.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK

NI
moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

OSTEGUN KONTALARIAK

INES BENGUA
(+ 6 urtekoentzat)
MARTXOAK 11



6 urtetik gorako neska-
mutikoei zuzendutako
ipuin kontaketa saioa
Haur Liburutegian. Bi
emanaldi: 17:30/18:15 (*)

**AMELIE, IPUIN
MUSIKATUAK**
(4-5 urtekoentzat)
MARTXOAK 25



4-5 urteko haurrei zuzen-
dutako ipuin kontaketa
saioa Haur Liburutegian.
Bi saio: 17:30 / 18:15 (*)

(*) **Sarrerak eskuratzeko
eman izena martxoaren
1etik 5era: 943716111 /
liburutegia@onati.eus /
688732826 (whatsapp)**



Hileko gomendioa

Hona hemen laminei
buruzko kontakizun ba-
tzuk, etxekotuak, gure
etxekoei eta herrikoei edo
inguruetakoei gertatu bali-
tzaizkie bezala kontatuak;
gure aurrekoek halaxe egi-
ten zuten behintzat.

Liburua

ZINEA



Martxoak 4 - 8

ZINE KLUBA:
Entre nosotras
NAGUSIAK:
Pequeños
detallees
GAZTETXOAK:
Ninja a cuadros



Martxoak 18 - 22

ZINE KLUBA:
La llorona
NAGUSIAK:
Minari,
historia de mi
familia
GAZTETXOAK:
Raya y el último dragón



Martxoak 11 - 15

ZINE KLUBA:
Las mil y una
NAGUSIAK:
Y llovieron
pájaros
GAZTETXOAK:
Raya y el
último dragón



Martxoak 25 - 29

ZINE KLUBA:
Nuevo orden
NAGUSIAK:
Los
traductores
GAZTETXOAK:
Cranston
EUSKARAZ



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16
Martxoak 8, 9, 17, 18, 19, 26, 27 eta
28. Apirilak 1, 2, 3, 4, 5 eta 6.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22
Martxoak 1, 2, 10, 11, 20, 21, 29 eta
30. Apirilak 7 eta 8.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58
Martxoak 3, 4, 12, 13, 14, 22 eta 23.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28
Martxoak 5, 6, 7, 15, 16, 24 eta 25.



MERKATU TXIKIA

KLASE PARTIKULARRAK Ingeniari-
tzako ikaslea naiz eta LH, DBH eta Ba-
txilergoko ikasleei klase partikularrak
emateko prest nago. Deitu: 688816197

ETXEA ALOKAGA Kanpantxo kaleko
8an, 3. pisuan, 110m², 4 logela, 2
komun, egongela eta sukalde han-
dia. Bista ederrak. Tel edo wasap:
635740123 (Andoni)

KLAS PARTIKULARRAK Lehen
Hezkuntzako eta Entzumena eta Hi-
zkuntzako irakasleak (logopeda), par-
tikularrak ematen ditu: 618310126

ODOL ATERALDIA

MARTXOAK 12 / 16:30-20:00
Enpresagintza fakultatean



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





(*) Itten: arrastua, pistia

>> INGO XONAU (eta 7)

GAZTELEKUAN

Xabier: Datorren egubakoitzian kontzierto politta dago Gaztelekuan!

Maider: Zeiñena, ba?

X: *Mila Modu* herriko taldia. Fango gara?

M: Eztakot problemarik, komentuak dostet Amaia eta Maleneri eta, gura baldin badaue, alkarrekin fango gara.

X: Neuk be Joxiri eta Manuri esango dostet ia etortetik dakoin!

M: Ondo da, horretan geraketan gara.

—Egubakoitzian, kontzertora fan aurretik, danok *Ongi* tabernan kaña banarekin—

X: Zer, hemendik aurrera egingo xonagu?

M: Egin, zer?

X: Berba, hika! Ezton nere txapia ikusi, ala?

M: Zer txapa? A, ba... enauk konturatu! Egin geikek, gura badok!

X: Etxakonat ohitturarik neskakin hika egiteko, baiña saiatuko naun ...

M: Amaia eta Malen, geu be saiatu biharko gaitun, e! Neskon artian etxakonagu-eta ohittura larregi hika ibiltteko!

Amaia eta Malen: Konforme, gaurtik aurrera gure artian betik hika egingo xonagu!

Joxi eta Manu: Geu be apuntaiten gaitun, jo eta ke egingo xonagu hika zuekin!

X: Guazak-guazak kontzertora, honeik beroketan hasi dittuk-eta!



>> BILLATU ADITZ HONEIN SINONIMUAK

- | | |
|-------------------|---------------------|
| 1. Etara | A. Igarri, usaindu |
| 2. Gogait egin | B. Umildu, zapaldu |
| 3. Ugaritu | C. Berri eman, esan |
| 4. Makurtu eragin | D. Nazkatu, aspertu |
| 5. Antz emun | E. Elkartu, batu |
| 6. Jakin eragin | F. Atera |
| 7. Alkartu | G. Xehetu |
| 8. Eballi | H. Higatu, gastatu |
| 9. Txikitu | I. Erabili |
| 10. Marruskau | J. Ugaltu |

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Pelotalekua Zubikoan

Azkenaldi honetan **obra haundixak** egin dira eta egitten dihardue Oñatiko **Zubikoa** kiroldegixan. Izan be, gure polideportibuak urtetxuak dako. Garai bateko Santa Anako komentuaren ortuan jaso zan, **1982ko akaberan hasi eta 1984ko maiatzian** amaittuaz. **Jabier Ortega Uribe-Etxebarria** arkitekto bilbotarraren ardurapeian modutu eben **Moiua** eraikuntza-enpresiak, **Eli Galdos** alkate zala. Oraingo obra honetan, dakizuenez, igerilekua zabaldu eta barriztau da, batez be. Baiña kiroldegiko **pelotalekuari be ikutu batzuk emun xaeu**. Hormetako kolorian, esaterako. Argazkixak jatorrizko lanen fase bat erakusten dosku, harmaillak itxuratuta, baiña paretak eta teillatua artian egitteko egozenekua.

Oñatik **makinatxo bat pelotaleku** ezagutu dau historixan zihar. Arantzazutik aparte, dokumentutan agerketan xakun **zaharrena plaza zaharrian** eguen, gaur egungo kioskuaren eta jardifien arteko esparru horretan; XVIII. gizaldira orduko aittaketan da eta sasue haretan bote luzian eta errebotian jokaketan ei zan, ezker pareta bariko frontoian. **Hurrengua** haruntzatxuago moldau zan, ezkerreko horma eta guzti: **1860ko Korpustietan inaugurau zan** eta, aldaketa batzuekin hor jarraiketan dau zutik 160 urte geruago. Tarte luze horretan pelota-partidu ugari ez ezik, era askotako jaialdixak eta ikuskizunak be ospatu izan dira frontue zaharrian, eguraldixak horretarako aukeria jareten dauenian.

Estali bariko pelotalekua izatiak eragozpen hori dako. Dana dala, ezin ukatu Oñatiko plaza inguruari eskintten xauen ikuspegi zabal, nasai eta dotoria. Kiroldegikua itxixa danez, hainbeste traba barik bideratu ahal izan dira bertan azkenengo hiru hamarkada t'erdí honeittan **klase guztietako agerraldixak**: pelotari dagokixonak bereziki, baiña gaiñerako arluak baztertu barik: **bertsolariak, dantzariak, antzerkiak, kantaldixak, abesbatzak, omenaldixak** eta abar.

Hala eta guztiz be, **eztira** honeik gure herriko **pelotaleku bakarrak**, ez horixe. **Arantzazuko seminarixuan** frontue bat baiño gehixago egon da menderik mende; azkenak 1955ian eraiki ziran eta kaletar askok ebaltzen zittuain. **Araotzekua** 1953an jasotakua dogu; **Zubillagakua** 1960xan; eta **San Lorentzoko** ikastetxekua, oraingo Eltzian, 1965ian. Auzuetako parrokiak eta ermitten elizpe batzuetan be jokatu izan da pelotan: **Araotz, Olabarrieta** edo **Madalenen**, adibidez. Desagertutakuen zirindaran, Arantzazuekin batera, **Zinepekua** (Aloña ziniaren azpitan zana), **Berdura-plaza zaharrekoa** eta **Loiola** txokolategixakua (partikularra) sartu biharko lirake. **Garaiñena** be pribaua da eta bota barik dago orainddiok.

Fotografixia udal artxiboko Arzuaga fondokua da. Informaziñua Anaje Kortabarriaren, Xabier Zelaiaren eta Gerardo Uribetxerriak idatzittako Oñati. Pilota eta pilotariak liburuaren bittartez eskuratu dogu. Eskerrik asko danoiri.

Oharra. Aurreko hilleko argazkixari dagokixon testuan esaten geben ikurriñaren legalizaziñokuan Jesus Mari Isasmendi eguela orduko zinegotzixen artian. Bere seme Jonek adierazi dosku, aitta Eli Galdosen lehenengo legealdixan izan zala kontzejal, 1979tik 1983ra. Aurreko udalbatza haretan, 1976kuan, Bixente Unzurrunzaga Lizarralde izango zan zinegotzi, bere seme Bixentek konfirmau dauenez. Milla esker zuzenketengatik.

Antzuola, Bergara eta baita Oñatin ere

Gezalaga Margoak

ERA GUZTIETAKO MARGOLANAK

- Industria
- Fatxadak
- Fatxada garbiketak
- Etxebizitzak



Tel. 616 277 999 eta 616 388 396
gezalagamargoak@hotmail.com